



MARI

KO

BASO

ESPAZIOA



**teef
totoan**

Itzulpen-lanak

Argitalpenak

Komunikazioa

Ekitaldiak

-  4 Iritziak
-  5 Gutunak
-  6 Laburrak eta albisteak
-  12 22. Korrika, Txorierrin
-  14 Itxaso Bruña, "Titontziak"
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Menditik patxadaz
-  20 Marikobaso Espazioa
-  24 Ukrainatik Deriora
-  26 Derioko San Isidro jaiak
-  30 Taldeak... Altzora Sondikako elkarteak
-  32 Emaus
-  33 Herbarioa... Aloea
-  34 Teknologia... *Spywarea*
-  35 Aikorrizketa... Liburuak
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda



12 22. Korrika, Txorierrin



26 Derioko San Isidro jaiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko
Euskara Elkarten Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx
komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 /
747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
Kolaboratzaileak: Azler García, Ines Serrano, Jose Angel Mentxaka, Iñaki Olabarrieta, Añer Mentxaka, Xabier Diaz, Joanes Camara, Idoia Andres eta Txiribita

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Kattalin Barcena (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako
esanen edota eretxien erantzukizunik

Aditu eta ulertu

"Lau gauzek izen bat dute eta gauza batek lau izen..." dio *Euskaldun berriaren baladak*. Hitzzen eta esanahien ur sakonetan murgiltzeak soka luzeegia ekar lezake batzuetan, eta alferrik askotan, baina kontzeptuen mundu honetan fin ibili behar izaten da ezinbestean, zenbait berba testuinguru argian eta azalpen zehatzen bidez josi eta argitu.

Horregatik "aditu" eta "ulertu"ren gaurko kontua, berba biak arras desberdinak izan daitezkeelako, batzuen iritzian.

Egunero eta kasik une oro erabiltzen dugu informazioa, kanpokoa zein barrukoa (gure buruko etengabeko jarduna, esan nahi da). Informazioa atzeman (ikusi, entzun...), jaso (identifikatu, aztertu, konparatu...), epaitu (iritzia eman...) eta gure ezagupenen sakura sartu. Dela erosketak egiten, dela berriren bat irakurtzen, dela inorekin berbetan... beti ari gara ingurunearekin harremanetan adi-

menaren bidez; pentsatzen, argiago esatearren.

Eman dezagun aditzea jatea bezalakoa dela: jaki zati bat ahoan sartu, haginekin txikitu, zaporea atera, aztertu, gozatu (edo ez) eta barrura. Aditzea arrazoimenaren bidez osatzen den prozesu mentala da: datuak jaso, gorde, erkatu, eztabaidatu, erabili.

Ulertzea, ordea, beste hariko ezpala dela esango nuke. Ondo ulertzeko, arreta guztia jartzen dugu, adi, so egin, aurreitirik gabe begiratu. Seguru asko, denok izan dugu une horietakoren bat, derrepentean zeozer argi eta garbi agertu den momentua, zalantza bakoa, garden. Agian egindako lan handiaren ondorioz, agian irudi baten kontenplazio hutsean. Eta zentzua agertzen zaigu. Holango egoeretan lasaitasun sakona ohi da eta argi dago aurrean dagoena dela benetakoa, eta erreala. Hitz batez, dena delakoa ulertu egiten dugu. Esan dezagun jana irentsi ostean gure zelula



INES SERRANO
Filosofian lizentziaduna

guztietara barreiatu dela eta errealtate horren sentipen argia bere osotasunean oparitzen digula.

Batzuetan esperientzia hori adimenaren bidez aztertzen saiatzen gara, eta hor hasten dira nahasmenduak. Desberdinak direlako. Aditzea erabilgarria da; ulertzea, bizigarria. Aditzea pentsatuz egiten da; ulertasuna sentitu egiten dugu. Aditzeak jakintza ekartzen digu; ulertzeak, jakinduria.

Printze Txikiari kasu, eta norberak aukera dezala ze begiekin begiratu funtsezkoenari.

Aspaldian berbetan ibili naiz ingurukoekin, gazte zein nagusi. Eta belaunaldiz belaunaldi norbere herriarekiko lotura modu deigarrian aldatzen dabilelako daukat. Nagusien belaunaldian pareko ikusten ditut gehienak: herria maite dute, baina lar ere ez. Badago herritik deslotuta dabilenik eta herrikoa izatea harrotasun osoz doroanik, baina profil hegemonikotik urruntzen den ezohiko banakoak dira.

Gazteongan, berriz, joera bi ikusi ditut. Batetik, herriko itxura nekagarri egiten zaienak, alde egiteko asmoa daukatenak edo herrian inplikatzek motibatzen ez dituenak. Bestetik, agian besteen konpro-

Erabakiak beti norberarenak?



AZLER GARCIA
Hizkuntzalaritza doktoregaia

misorik ezak eraginda, herrikoa izatea identitatetzat daukatenak. Esandako guztia ez da berria izango ingurukoek adi dabilenarentzat; hala ere, zalantzan ipini nahiko nuke herriarekiko lotura ahula daukaten gazteek ez ote duten horrelakorik berez erabaki. Egia da gure herriek ez dituztela denon nahiak aseko, baina gazte bati zelan gustatuko zaio herri jakin bat, bertan bizitzeko aukerarik ez badu? Zelan inplikatu da herrian, udalarentzat gazteak ezinbestekoak ez badira?

Alaia
fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Taller, 5
48170 Zamudio
94 485 05 85

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behe
Zamudio
94 4520419

Lortu dugu eta lortuko dugu

Bost hilabete daramatzagu Larrabetzun, Lezaman eta Zamudion garraio publikoaren alde borrokatzen, eta badirudi argia ikusten ari garela tunelaren amaieran. Otsailean hiru herrien borrokari esker, lehen fruituak ikusi genituen: Garraio Partzuergoak jakinarazi zigun 08:00ko A2151 Areetako autobusa Leioako EHUra iritsiko zela. Hala ere, aurrerapauso hori mehatxuz jaso genuela salatu genuen herritarrok; izan ere, zerbitzu berria ez erabiltzekotan, hori kentzeko mehatxua egin zen. Hortaz, Garraioa Irauliko kideok salatu genuen erdigunean etekin ekonomikoak jartzea. Gainera, aldaketa ikasturtearen erdialdean etorri zen eta Leiora joaten diren ikasleek eta langileek ordurako bazituzten unibertsitatara joateko bestelako ohiturak: autoz batik bat. Horregatik, datorren ikasturteari kezka begiratzeko diogu, eta Garraio Partzuergoari zerbitzu berria mantentzea eskatu, datorren urtean lehendabizi unibertsitatara joango diren ikasleek garraio publiko duina izan dezaten. Jarri dezagun fokua datozen belaunaldietan.

Bestalde, zonaldeari dagokionez, Larrabetzuko Udaleko kideak Garraio Partzuergoko gerentearekin batzartu ziren. Bilera horretan, ekainean Larrabetzu 2. zonaldera aldatzeko konpromisoa adierazi ziguten, inolako sinadurarik edota adostasun formalik gabe, haien hitza emanez. Egun berean, Larrabetzun bilera herrikoia egin genuen eta, egoera kontuan hartuta, aurrera begirako pausoak adostu. Herritarrok borrokan jarraitzea adostu genuen, ez baitugu Larrabetzu 2. zonaldera aldatzeko konpromisoa beteko denik sinesten.

Otsailetik gaurdaino, aldarriak kaleetan izan ditugu, herritarrei uneoro borrokaren deia eginez; horren adibide da apirilaren 10ean Larrabetzun ospatutako Txakolinaren Egunean ipini genuen pankarta. Txorierrin garraio publikoaren aldeko borrokan aurrerapausoak egin ditugun arren, izandako aldaketari nolabaiteko kezka begiratzeko diogu, azken bost hila-beteetan lortutakoa galtzeko arriskua dago eta. Horregatik, Garraioa Irauliko kideok borrokan jarraitzeko deia egiten

dugu: ekintzetan parte hartuz, indibidualki aldarriak kaleetan mantenduz eta abar. Azken txanpan gaudela esan dezakegu, horrenbestez azken bultzada ezinbestekoa da, Txorierrin larrabetzuarrek eta EHUko ikasle zein langileek autobus zerbitzu duina izan dezaten.

Txorierrin garraio-zerbitzu publiko duina! Borrokak merezi du!

Sare sozialak: garraioa.irauli

Garraioa Irauli taldea



m
Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

“Gehien gustatzen zaidana ikasteko giroa da”

Andoni Unzueta (Santurtzi, 19 urte) Ingeniaritza Mekatronikoko graduoa 2. maila ikasten ari da Bilbao AS Fabrik campusean.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak, baduzu zaletasunik?

Escolapios Ikastetxean egon nintzen Bigarren Hezkuntza amaitu arte. Lehenengo Batxilergoa Estatu Batuetan egin nuen, Floridako Winter Haven herrian. Bilbora bueltatu nintzenean, Botikazar institutura joan nintzen han klaseak euskaraz zein ingelesez direlako. Nire zaletasunak nahiko ohikoak dira: lagunekin eta familiarekin denbora pasatzea, hondartzara joatea, musika entzutea eta bi-diaitea.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak, baduzu hobbiedo zaletasunik?

Portugaleteko Santa Maria Ikastetxean egin nituen ikasketak eta nire zaletasun nagusia motorraren mundua izan da beti.

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Mekatronika graduoa? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Mekatronikako Ingeniaritza graduoa ezagutu nuenean ez nuen zalantzarik izan. Ingeniaritzaren kontzeptuak ikasketak praktikoko batekin bereganatzea duelako oinarri. Gainera, mekanika, elektronika eta automatizazioa batzen dituen gradu bat da, gaur egungo industrian oso baliosua den profil balio-anitza eskainiz.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte, eman ditudan bi urteetan ezin dut nire erabakiarekin gusturago egon. Egia da Ingeniaritza bat dela, denbora luzez ahalegindu eta jardun beharreko ikasketak gogorak, baina oso pozgarria da ikustea nola aplikatzen duzun ikasitako kontzeptu guztiak eta nola irakasleengan jasotako tratua oso hurbila eta pertsonalizatuta den.



Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Etengabeko ebaluazio ereduaren oinarritzen da. Honek esan nahi du sei hileko hasieratik bukatu arte azterketa eta lanak egiten direla, eta eguneroko dedikazioa eskatzen duela hasieratik. Guztia egunean eramatea, ikaslearentzat lagungarria izaten da, ez baitira azterketa eta entrega guztiak sei hilekoaren amaieran pilatzen. Bestalde, ezagutzak probatzeko, azterketak egiteaz gain, arazo bat proposatzen da taldeka. Eskolan POPBL bezala ezagutzen da (Problem Oriented Project Based Learning), eta etapa gogorra da, lan handia baitago, baina oso gogobetegarria da, konturatzen zarelako zer egiteko gai zaren eta ikasten ari zaren horrek benetan zertarako balio duen.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbat hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana ikasteko giroa da, klaseko giroa ezin-hobea da baita irakasleekin harremana ere. Nire ustez hobetu daitekeena, Bilboko campusean unibertsitate giroa sustatzeko ikasleen arteko aktibitate gehiago proposatzea da. Egia da Zorrotzaurreko eraikinak urtebete pasatxo duela bakarrik, eta denbora horretan hobekuntzak nabaritu direla azpiegitura-mailan, baina uste dut oraindik badagoela hobetzeko tartea.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Momentuz, nire planak ahalik eta gehien ikastea eta eredu dualaren esperientzia aprobetxatzea dira. Oraindik ez daukat ezer argi, baina gradu amaizten dudanean ikasten jarraitzea gustatuko litzaizkide. Hidrogenoaren gaiak jakin-min handia sortzen dit, eta interesgarria izan liteke gaia aztertzea Mondragon Unibertsitateak eskaintzen duen Hidrogeno Teknologien Masterra aprobetxatuz.

Nazioarteko birari ekingo dio Joseba Gotzonek

Pandemia dela eta, Loiuako abeslariak bertan behera utzi behar izan zuen nazioarteko bira, baina, iragarri duen moduan, urrian Argentinara eta Mexikora joateko asmoa du; gainera, Hego Amerikako beste herri batzuetan ere kontzertua egitea baliteke. Bestalde, Gotzon Malagan izan da eta datozen hilabeteetarako kontzertu hauek ditu itxita: apirilaren 28an, Lugon; maiatzaren 27an, Murtzian; eta ekainean, Alacanten.

Emanaldietan, Gotzonek bere ibilbidean egindako kantak abestuko ditu, eta Urrundik bere azken proiektua aurkeztuko du. Horretan, loiuztarrak omenaldia egin dio diasporari; bereziki euskal diasporari. Gotzonen kontzertuak akustikoak izango dira. Abeslariak jakinarazi duenez, urte amamieran bere azken lana argitaratuko du: La pluma erotica.



Kalean da Josu Ginea larrabetzuarra

Etixeratek jakinarazi duenez, ia 20 urteko espetxe-zigorra beteta, atzo Basauriko kartzelatik atera zen Josu Ginea larrabetzuarra. Frantzian ia zortzi urte eman zituen kartzelan Gineak, eta 12, Espainian; gehienak, Almerian. Larrabetzuarra 2002. urtean atxilotu zuten Frantzian.



a: Idoia Andres

EUSKAL HERRIKO ITZULIA TXORIERRITIK PASATU ZEN. – Euskal Herriko Itzulia apirilaren 4an hasi zen Hondarribian, eta apirilaren 9an Arraten bukatu. Lasterketa zuzenean ikusteko aukera izan genuen Txorierrin, laugarren etapa Zamudion bukatu baitzen, eta bosgarrena ere bertan hasi zen eta. Txirrindulariek gure herriak zeharkatu zituzten.



LARRABETZUKO ATERPEA SARITU DUTE. – Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak COAVN Sariak antolatzen ditu. Larrabetzuko Udalak jakinarazi duenez, plazako aterpeak lehen saria jaso du aurten, *ex aequo* eta hirigintza modalitatean. Beñat Saratxaga eta Gentzane Goikuria arkitektoen lana da Larrabetzuko aterpea.



ORDUTEGIA
Astelchenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO



EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Espezializatea:
Xafra-lanak
Zoruak

944522910 - 665703312 - 652772018

Gerra Zibilean eta gerraostean exekutatutakoei omenaldia



Gogora institutuak egindako ikerketaren arabera, 2.194 lagun exekutatu zituzten Gerra Zibilean eta gerraostean (1936-1945). Horietatik 60 emakumezkoak

ziren, eta 2.134, gizonezkoak. Erdia inguru zibilak ziren. Eusko Jaurlaritzak eta Gogora institutuak omenaldia egin zieten martxoan, Vista Alegre hilerrian, Derion.

Omenaldian parte hartu zuten biktimen 300 senide inguruk eta horiekin batera izan ziren, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria, Aintzane Ezenarro Gogoraren zuzendaria, Esther Apraiz Derioko alkatea, Igotz Lopez Zamudioko alkatea eta Juan Mari Aburto Bilboko alkatea. "Kausa justua defendatu zuten: askatasuna, beren herrialdearen defentsa eta autogobernua, justizia soziala, printzipio eta balio demokratikoak." "Gaur, beste behin, ozen eta argi esaten dugu: bigarrena hil zituzten", esan zuen Urkulluk. Gainera, omendutako biktima asko Vista Alegre hilerriko hormen kontra fusilatu zituzten. "Horma horiek frankismoaren basakeriaren sinbolo dira gaur egun, eta batez ere duintasunaren, memoriaren eta askatasunaren eta demokraziaren aldeko sinbolo".

Bestalde, hiru biktimaren senideek hildakoak ekarri zituzten gogora, eta exekuzioen gaineko bideoa ikusi zuten bertaratutakoek. Azkenean, gaur egun konserbatzen den horma baten bi aldeetan, oroitzapeneko bi plaka jarri ziren; horietan Derioko hilerrian exekutatu eta lurperatutako pertsonen izenak jaso dira, guztira 523 pertsona.

Lezamako Udalak jakinarazi duenez, hainbat lekutako argiak aldatu dituzte eta haien ordez LED argiak ipini dituzte. Besteak beste, leku hauetan aldatu dituzte argiak: zenbait landa-eremutan, farmaziaren inguruan eta Kurtzeko tren-geltokian. Frontoiaren atzeko parkingean eta Lezamako tren-geltokiko parkingean ere jarri dituzte argi berriak, eta, hortaz, argiztapena hobetuz eta energia aurrezteaz gainera, herriko bi puntu beltz ere kendu dituzte.

Udalak azaldu duen moduan, ingurumena zaintzearen aldeko apustu irmoari eusten dio eta, horretarako, energia-

Argiak aldatu dituzte Lezaman

kontsumoa eta CO2 emisioak murriztea ahalbidetzen dituen ekintzak egingo ditu. Lanetan 36.585,74 euro ipini dituzte eta diru-kopuru hori Bizkaiko Foru Aldundiak ordaindu du oso-osorik, dirulaguntza baten bidez. "Udalak garrantzi berezia ematen dio inguruena zaintzeari eta helburua izan da kaleko argiak zaintzea. Energia aurrezteaz ez ezik epe luzera gastua murriztea ere ekarriko du LED sistemak. Bestalde, gure lehentasunetako beste bat da udalerriko puntu beltzak kentzen jarraitzea".



Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioitza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTEDI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areltza doktorea, 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

Loiuko Gazte Eguna

Loiuko Bakarrak gazte elkarteak antolatuta, maiatzaren 7an Gazte Eguna egingo da herrian. Goizeko 12etan gazteen arteko jolasak izango dira plazan, eta 15:00etan, gazte-bazkaria. Taberna Ibiltariak bazkalostea eta arratsaldea girotuko ditu, eta 22:30etik aurrera hurrengo musika-talde hauek igoko dira agertokira: Ugerda, J Martina, Mixerabliak eta Tierra Kritikal. Loiuko Udalak lagundutako ekintza da.

Ibilbidea, berbalagunen eskutik

Ikasturtea amaitzean dagoen arren, berbalagunek gogotsu jarraitzen dute eta Akarlanda-Martiartu-Akarlanda mendi-ibilbidea antolatu dute maiatzaren 22rako. Hitzordua goizeko 9,30ean ipini dute Akarlandako beheko aparkalekuan eta bisitatuko dute, besteak beste, Urederrako basoa, Muñarrekolandako dolmenak eta bunkerra, Sustatxa baserria eta basoa, Martiartuko dorrea, mahastiak eta ahabien eta kiwien plantazioak. Izena ematea maiatzaren 19a baino lehen egin behar da 635 753 595 telefono-zenbakira deituta. Bestalde, ekainaren 3an afaria egingo dute Baserri Antzokiko txokoan.



Martiartu dorrea. a: wikipedia

Hegalariak taldeak Bizkaiko Kopako lauko finala jokatuko du



Giro aparta egon zen apirilaren 12an Sondikako Gorondabeko kiroldegiko harmailetan. Ez zen gutxiagorako izan, etxekoek, Hegalariak taldeak, 5 eta 4 irabazi ziotelako Mahastiak Labastida taldeari Euskal Kopako final-laurdenetan. Partida zirragarria izan zen eta, garaipenari esker, sondikoztarrek lauko finala jokatuko dute maiatzaren 14an eta 15ean. Aurkariak eta aretoa oraindik zehaztugabe daude.

Hegalariak taldeak erronka ederrari egin zion aurre, talde bien artean kategoriatik biko alde dagoelako. Hala ere, Gorondabekon ez zen alde hori inondik inora ikusi, sondikoztarrek gogotsu jardun zutelako. "Bihotza muskulurik garrantzitsuena da; gaur, Hegalariak taldeak bihotzez jokatu du eta guk ez. Zorionak!", esan du Ivan Mulas Bastidako entrenatzaileak gizarte sareetan.

Sondikoztarrek gogor ibili ziren defentsan eta arin atera ziren kontraerasoan. Eta horietan oinarritu zuten garaipena. Lehenengo zatian bukatutakoan, 3 eta 1 izan zen markagailuan. Bigarren zatian,

laugarrena ere sartu zuten Claudioren mutilek, baina, horren ostean, gorriak ikusi zituzten garaipenari eusteko. Arabarrak 4 eta 2 gailendu ziren eta atezaina jokalaria zebilela, sondikoztarrek beste gol bat sartu zuten. Eta handik bukaera arte, sufrimendu itzela: hainbat eta hainbat gol aukera izan zituzten Bastidakoek, eta nahiz eta gol bi gehiago sartu, azkenean txorieritarrak nagusitu ziren.

Jakobe (2), Finez, Trabu eta Patxi izan ziren etxekoek golegileak; Imanol lehenengo zatian airtu zen atezain, eta Juan, bigarrenetan. "Gauza bi azpimarratu nahiko nituzke: batetik, aurkaria; Labastida oso talde indartsua da, teknikoki ona, azkarra... Eta oso dotore jokatu dute, kexarik adierazi ez dutelako; eta bestetik, Gorondabekoko harmailetan bizi izan genuen giroa. Gaztez beteta egon zen, gure alde animatzen. Hori ia garaipena baino garrantzitsuagoa da, herrian kluba hedatu nahi dugulako eta, horretarako, Sondikako gazteak behar ditugulako, gure etorkizuna dira eta", esan du Oskar Eguskiza Hegalariak taldeko kideak.

IZ
Txantxangorri. 2
ZAMUDIO
946 036 943
Ile-apaindegia
estetika

RPS: 184/10
TIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

L. LEIZADLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857
OK
OAKLAND
ENGLISH



Giro ederra, Larrabetzuko Txakolinaren Egunean

Txakolinaren Eguna Larrabetzura itzulia da. Pandemia dela eta, urte bi eman dute azoka egin barik, baina aurten gogotsu ospatu dute 19. aldiz. "Oso pozik gaude, bisitarien erantzuna itzela izan delako. Bostehun edalontzi jarri genituen salgai, eta 13:00etarako, guztiak genituen salduta", adierazi du Iñigo Gaztelu alkateak.

Batutako diruari esker, laguntza eman-go diete elkarte biri, bakoitzak 500 euro jasoko baititu: batetik, Zaporeak elkarteak, Greziako errefuxiatuei jaten ematen diena; eta bestetik, Txokoan, emakumezkoen pilota Larrabetzun bultzatzen duena. An-

tolatzaileak ez ezik, txakolin-ekoizleak ere agertu ziren poz-pozik. "Esan digute izugarri saldu dutela. Goizean jende pila etorri zen, baina arratsaldean ere hainbat lagun ibili ziren herrian. Eguraldi ona egin zuen eta jendeak gurera etortzeko aprobetxatu zuen. Izugarritzko giroa izan genuen herrian, egun osoan zehar", esan du Gazteluk.

Betiko moduan, Txorierriko zortzi ekoizleren ardoa dastatzeko aukera egon zen azokan: Gorka Izagirre, Sasine, Sasi-koetxe (Larrabetzu), Basalbeiti, Erdikoetxe, Garkalde, Magalarte (Lezama)



Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzea Zamudion

Maiatzaren 20ra arte zabalik egongo da 2022ko Ibilgailuen gaineko Zerga borondatez ordaintzeko epea Zamudion. Ordainketa egin daiteke banketxean, www.zamudio.eus webgunean, udaletxean bertan eta Eusko Jaurilaritzaren "NireOrdainketa" ordainketa-pasabidean, 9052180 BPK kodea sartuta. Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei apirilaren 21ean kobratu zitzaie.



WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Leire Fernandez da apirileko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala



Txorierr 1. et., 46
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31



Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

Batukada-tailerrak Lezaman

Silvia Palumbo kantautore argentinarraren eskutik, batukada-tailerra izango da Lezaman apirilaren 30ean eta maiatzaren 2an eta 4an. Tailerra Moreak talde feministak eta udalak antolatu dute eta berdintasuna@txorierri.eus helbide elektronikora idatzi behar da izena emateko. Saioak Uribarri Topalekuan egingo dira: apirilaren 30ean, 11:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 16:00etara, eta maiatzaren 2an eta 4an, 18:30etik 20:30era.



Sondikak 765.000 euro zuzenduko ditu argiak hobetzera

Sondikako Udalak jakinarazi duenez, aurrekontua handitzea onartu du, bizitegi-eremuetan eta udal-eraikinetan LED argiak ipintzeko. Guztira 765.000 euro ipiniko ditu horretarako. Udalaren hitzetan, plana argindarraren kostuek gora egin baino lehen ipini zen martxan, eta berari esker murriztuko dira kontsumoak eta argi-kutsadura.

Txuma Olagüe abesbatzak berriro ekin die kontzertuei

Pandemia gaindituta-edo, Sondikako abesbatzako kideak ilusio handiz hasi dira berriro elkartzeko eta erreperitorio berria prestatzen dabilta. Gainera kontzertu bi egingo dituzte maiatzaren 7an, 20:00etan, izango da Sondikan bertan, San Joan Bautista elizan, eta bigarrena, hilaren 13an, Bilbon. Kontzertu bietan Sestaoko Orfeoiaekin eta Euskeria Bilboko abesbatzarekin batera arituko dira.

Udal-kudeaketa bikaina da, loiuztar gehien iritzi



Bertako udalak hala eskatuta, Gizaker enpresak inkesta bat egin du Loian, herritarrek udal-kudeaketari buruz duten iritzia jasotzeko. Emaizen arabera, loiuztarrak pozik daude udalarekin eta bat egiten dute agintariak garatzen dituzten proiektuekin.

Inkestan jaso denez, Loiuako Udalak herritarren beharrezanean erantzuteko jarraera adierazten du: inkestatuen % 83,5ek esan dute udala "bikaina" edo "ona" dela, eta % 1,2k, aldiz, "txarra" dela. Josu Andoni Begoña alkatearen irudia ere ona da:

inkestatuen % 99,1ek ezagutzen dute alkatea eta 8,2ko nota ematen diote; "hurbila" dela uste dute.

Udal-zerbitzuak ere hartu dituzte aintzat, eta "guztiak bikainak direla" adierazi: lorategiak zaintzea, udal-ikastaroak, kalean erraz aparkatzea, zaborra baltzea, hirigintza, gizarte-zerbitzuak eta segurtasuna. Euskarak eta argiteriak notarik txikiena lortu dute: 7,3 eta 7,4, hurrenez hurren. Udalak martxan jarri nahi dituen egitasmoek ere inkestatuen atxikimendua jaso dute: etxebizitza be-

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zaharritu Berriak
Logopedia
Podologia
Kinesioterapia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriñi etorbidea, 9 - Lorja | Antsaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

PELUCERIA
ESTETIKA
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postres
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txoriñi etorbidea, 9-4
413. bulegoa
48160 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 98
a.amondarain@euzkoiparrak.net

riak eraikitzea, argiteria hobetzea, Larrondoko auzo-etxea berritzea, enplegu-plana, gimnasioa, saneamendua, igerilekuak, errotonda, auzo-taxia eta belar artifizialezko futbol-zelaia.

Azken urteotan, zenbait proiektu egin dira Loiun eta horien artean hauek azpimarratu dituzte inkestan: garraibideak hobetzea (% 14,3); hurbiltasuna eta informazioa (% 11,8); egindako guztia (% 11); hobekuntzak oro har (% 9,2). Besteak beste, proiektu parte-hartzaileak, gaur egungo proiektuak, bidegorria eta igerilekuak aipatu dira. Etorkizunari buruz ere eman dute iritzia. Inkestatutakoen % 90,2k esan dute herriko argiak hobetu behar direla. Era berean, % 89,8k anbulatorioa lau egun goizez eta beste bat arrastiz irekita egotea nahi dute; gaur egun, ordea, goizez baino ez da zerbitzua eskaintzen. Azkenik, % 87 kiroldegia eraikitzearen alde agertu dira.

Guztira, 18 urtetik gorako 281 lagunek erantzun diete galderei: % 17k euskaraz egin dute; gainerakoek, gaztelaniaz. Udalak 2010ean egin zuen lehenengo inkesta eta, harrezkero, lau urterik behin egin dute ikerketa. Josu Andoni Begoña alkatearen esanetan, emaitzak gero eta hobeak dira, loiuztarrek udalari gero eta nota altuagoa ematen diotelako: 2010ean, 6,48; eta 2022an, 8,03.

Bizkaiko dantzariak maiatzaren 15ean batuko dira Zamudion

Atsotitzak honela dio: "Bi ezkerro, hiru seguru". Pandemia dela eta, Bizkaiko Dantzarien Eguna bi urtean bertan behera utzi ondoren, aurtun maiatzaren 15ean egingo da Zamudion. Hiru Bat dantza taldea anfitrioi izango da eta, azaldu dutenez, gogotsu dabilta. "Hainbeste denbora itxaron ostean, ia ez dugu sinesten. Ilusio handia dugu. Espero dezagun dena ondo ateratzea eta dantzarien eguna ahalik eta normaltasun handienaz ospatu ahal izatea".

Goizean, Bizkaia osotik etorritako dantzariak Uribe plazan batuko dira eta

handik kalejiran irtengo dira Zamudioko futbol-zelairaino. Bertan dantzen agerraldia egingo dute.

Ondoren, herrigunera itzuliko dira bazkaltzera eta arratsaldean erromeria egongo da. Aurreko urteetan, 2.000 dantzari inguru batu ohi izan dira Bizkaiko Dantzarien Egunean, baina parte-hartzaileen kopurua aldatu daiteke aurtun, pandemiak dantza-taldeetan izan duen eragina dela eta. Nolanahi ere, dantzariak gogotsu helduko diote hitzorduari eta euren egun handia disfrutatuko dute.



en✓iser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
Auzolagileak

Elena Lombana (elk.553)

Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215

10:00-14:00 / 16:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)

Tipi-tapa Txorierrin



22. KORRIKAK apirilaren 6an, arratsaldean, zeharkatu zuen Txorierrri eta lekukoa eskuz esku pasatu zen Larrabetzutik Erandiogoikoraino. KORRIKAK hainbat irudi utzi zizkigun; horietako batzuk batu ditugu argazki-galerian; gehiago aikor.eus webgunean.






**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNCIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai izazguz Facebook-en

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-itxialak, erakuslan
Auzokoen konsumatibak
Mantutze garbi-itxialak
Bulegoak eta lokalak
Oloren amariako garbiketa
Ikastetxeak
Zabur bitxak

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Centro Dental

Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21



Titiak zeramikazko artelanetan

ITXASO BRUÑA ABERASTURI | artisaua

Titontziak markapean, emakumeen titiak protagonista diren artelan bitxi-bitxiak sortzen ditu loiuztarrak: loreontziak eta katiluak, haien artean. Forma eta adin guztietako titiak zizelkatzen ditu, emakumeen gorputza desexualizatzeko eta emakumeen errealitate ezberdinak ikusgai egiteko.



t: Ixaso Marina Ondarroa

Arte Ederretako ikaslea da Bruña, eta prestakuntza-ibilbidea zeramika arlotik jorratzen dabil. "Unibertsitatean esaten digute erreferentziak topatu behar ditugula piezak egiteko. Nik argi nuen nire gorputzean oinarritutako zerbait egin nahi nuela, baina ez nuen hain garbi zer egin. Bilatzen hasi nintzen eta erreparatu nion emakumea artean irudikatzen den moduari. Gehienbat labar-arteak, labar-eskulturak, eman zi-

dan atentzioa eta halako batean goiko aldetik apurtuta zegoen emakume baten bularra topatu nuen: loreontzi-forma zuen eta horrelako zerbait egitea bururatu zitzaidan. Izan ere, emakumeon titiak oso ezaugarri agerikoa edo nabarmena dira eta ni neure feminitatea lantzen nenbilen; horrelako zerbait egin nahi nuela sentitu nuen. Lehendabiziko titontzia nire titietan oinarrituta egin nuen".

Lan horren ostean, ahizpek egindako enkarguak etorri ziren, eta gero, emakume

Hurbiletik

Amamarengandik datorkio arterako grina. "Jostuna zen eta gogoratzen dut beti zegoela eskulanak eta artelanak egiten, margotzen... Baina, hainbeste gazteri gertatzen zaien moduan, batxilergotik zer ikasi ez nekiela atera nintzen: estetika ikasi nuen, makillaje profesionala eta turismoa. Bost urte eman nituen turismoan lanean, baina oso esperientzia pertsonal gogorra izan nuen eta nire buruari esan nion aldatu behar nuela: bat-batean Arte Ederrak ikasteko aukera etorri zitzaidan gogora. Apur bat itsu sartu nintzen eta zeramika eskultura-eskolan ezagutu nuen: «Hau da nirea», pentsatu nuen. Karrera datorren urtean amaituko dut".

Ikasketak bukatu ondoren, Bruñaren asmoa da egitasmoarekin jarraitzea eta bizimodua handik atera ahal izatea. Ohiko salmenta-bideez gainera, artisauen azoketara ere joaten da. "Egitasmoak harrera ona du orokorrean. Jendearen erantzuna hau izaten da: «Hara, titiak! Ze politak!» edo «Haraaa, titiaaak (kar-kar)», gaztetxoak eta mutilak badira; serioago ipintzen dira, pieza mastektomizaturik ikusten badute. Baina orokorrean ondo saltzen da. Bilboko Areatzako artisau azokara hilean bitan joaten naiz, eta Iruñean ere izaten naiz emakume artisauen kolektibo batekin. Ikasketak direla, titontziak-eta direla, ez dut denbora libre askorik eta horregatik nahiago dut momentuz azoka pare batera joan".

gehiagorenak. "Konturatu nintzen nik ez ezik beste emakume askok ere «zerbait berezia» zutela euren gorputzarekin, euren titiekin". Gaur egun titontziak (loreontziak) egiten ditu, titiluak (katiluak), txupito-edalontziak, kamisetak, imanak eta tripontziak (haurdun daudenak). "Piezak nire kabuz diseinatu ohi ditudan arren, lan pertsonalatuak ere egiten ditut. Emakumeek euren titien argazkia bidualtzen didate, pieza egin dezadan. Hala ere, lotsa dela eta, batzuek bikiniak jantzita



dutela bidaltzen didate irudia, edo titien marrazkia, edo titien deskribapena, eta kasu horietan igarlearena ere egin behar dut (kar-kar)". Loiuztarrak titi handiak modelatzen ditu bere artelanetan, txikiak, emakume nagusien titiak, gazteenak, titi eroriak, tenteak... "Titontzi mastektomizatuak ere egin ditut, eta titontzi trans bat ere bai. Lanak errespetu eta maitasun osoz egiten ditut beti, baina bereziki halako egoerak bizi izan dituzten emakumeentzat direnean, atzetik beren istorioa dutelako".

Inspirazioa hondartzan topatzen du. "Garai batean pornografian ere arakatu nuen, baina horretan ez dira normalean titi naturalak agertzen. Beranduago, titiak normalizatzeko proiektuak ezagutu ditut eta inspirazioa horietan ere aurkitu dut". Enkarguz edozein tamainatako piezak onartzen baditu ere, gehienbat pieza txikiak eta ertainak egiten ditu. "Hasieran ez nuen piezak labera sartzeko aukerarik, eta airez lehortzen den buztina erabilita hasi nintzen titontziak egiten. Pieza horiek akrilikoez margotzen ditut eta berniz berezia botatzen diet. Titontzi horien barruan loreontzia ipini behar da, baina batzuk tematzen dira landarea titontzian bertan landatzen: kasu horretan drainatzea jarri behar da, eta ur gutxi behar duen landarea landatu. Bestalde, geroago Bilboko tailer batean izena eman nuen teknika hobetzeko eta temperatura baxuko buztinarekin lan egiten hasi nintzen. Hainbat koloretako buztina erabiltzen dut –zuria, gorria, terrakota, beltza...– eta izugarri gustatzen zait koloreak nahastea, beste tonalitate batzuk lortzeko. Piezak birritan sartu behar dira labera: lehenengo eta behin, «bizkotxo» egiten da, hau da, pieza gogortu, eta gero esmaltea eman edo



beiratzten da, pieza impermeabilizatzeko eta, adibidez, titiluan kafea edan ahal izateko edo hura mikrouhinetan edo ontzi-garbigailuan sartu ahal izateko".

Desexualizatzea

Lan handia dago pieza bakoitzaren atzean. "Ereduak ditut titontziak egiteko eta titiak egun batean-edo zizelkatzen ditut. Arreta bereziki sartzeko prozesuan ipini behar da, batzuetan buztina mugitzen delako edo gerta daitekeelako arrakalaren

bat agertzea. Astebete eman dezaket titontzia egiteko. Titulua sortzeko prozesua, berriz, luzeagoa da, buztina ondo sikatu behar delako, pieza Bilbora eraman labera sartzeko, beiratu, berrito labera sartu... Hiru asteko prozesua izan daiteke".

Loiuztarrak garrantzitsutzat jotzen du errealitate ezberdinak ikusgai ipintzea eta bere lana erabiltzen du horretarako. "Esaterako, emakumearen gorputza objektu sexuala ez dela adierazteko eta apur bat desexualizatzeko. Dibertsitatea ere erakutsi behar dela uste dut, eta horregatik, bakarrik titi zuriak eta perfektuak egin beharrean, ahalegintzen naiz tamaina, kolore eta errealitate askotako titiak egiten". Hasieran aipatutako piezez gainera, Bruñak ideia asko ditu buruan eta baliteke inoiz egitasmoa handitzea. "Emakume-itxurako pitxerra egin dut eta badakit beste gauza asko aterako direla, marka honetatik edo, batek daki, beste marka batetik". Bere artelanak Bizkaiko, Gipuzkoako eta Frantziako zenbait dendatan erosi daitezke, edo bere webgunean: titontziak.com. Gainera, hileko salmenten % 10 gizarte-proiektuetara zuzentzen du.



**Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin**

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lantegi Heziketa eta Bideren Irakaskuntzako Institutua

Unitatek Euzko Kalea, 1
48160 - DERIO | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

SEKONDARIAREN GARAIPEN
ETA ADIBERGATUTAKO ZIKLOAK

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

BATXILERGOA
• Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
• Produktzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
• Automatizazioa eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari
• Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
• Salmenten eta Merkataritza Esperuen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
• Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

40 urte, milaka txori

Heziketa fisikorako baliabideak, klik bateko distantzian

MUGI TXORIERRI APP berria martxan dago jada. App honek ariketa fisikoa egiteko baliabideak jasotzen ditu, herri sailekatuta. Gainera, ibilbideak ere agertzen dira bertan, eta ataletako bat Txorierri pasatzen diren Aldundiko Kolesterolaren ibilbideentzako utzi dugu. APPa berriren joango gara, baliabideak eta ibilbide berriak sartzen.



“Paziente bizia” taldea martxan

Paziente Bizia-Paciente Activo programa nork bere burua zaintzen ikas- teko programa bat da; horren bidez, gaixotasun kronikoak dituztenei edo horrelako gaixo bat zaintzeaz arduratzen direnei zuzenduta dago. Programaren horren barruan tailer batzuk eskaintzen zaizkie interesa dutenei, gai izan daitezen gaixotasuna ulertzeko, beren osasunaz arduratzeko, eta gaixotasunaren inguruan erabaki egokiak hartzeko.

Tailerrak Kultur Birikan izango dira, 12:00etatik 14:00etara, egun hauetan: apirilaren 27an, maiatzaren 4, 11, 18, 25ean eta ekainaren 1, 8 eta 15ean.



Sari banaketa arrakastatsua

Txorierriko ipuin lehiaketak ere, beste programa askok bezala, bi urteko geldialdia izan du. Aurten ostera, merezitako sari banaketa antolatu ahal izan dugu Zamudioko eskolan, martxoaren 18an, eta inoiz baino jende gehiago elkartu da.

Urtero bezala, arrakasta handia du Mankomunitateak antolatzen duen ipuin lehiaketa honek, batz bestea 350 bat ipuin aurkezten baitira kategoria desberdinetan banatuta.

Aurten 363 ipuin izan dira aurkeztutakoak hainbat kategoriatan banatuta, alboko laukian ikusten den moduan.

Sari banaketan Tor magoaren ikuskizunaz ere gozatu ahal izan genuen eta bertaratutako guztiek ederto pasatu zuten ekitaldian.

Zorionak irabazle guztiei eta datorren ediziorako hasi irudimenari eragiten!



KAT.	ADINA	PARTE- HARTZAILEAK
A	7 urtera arte	36
B	8-9	131
C	10-11	165
D	12-15	26
E	16 tik aurrera	5




Maiatzak 17: desberdinak baina berdinak

LGBTIfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dator. Gutako askok, hainbat kontzeptu nahasten ditugunez, azalpen hauekin argi apur bat eman nahiko genuke, garbi izan dezagun zer den aniztasuna. Baina ez ahaztu, aniztasuna dagoen arren, denok berdinak garela.

GENERO ADIERAZPENA

Portaeraren, janzkeraren, orrazkeraren, ahotsaren, ezaugarri fisikoen eta abarren bidezko kanpo-aurrezpena edo itxura. Genero-adierazpenak nabarmen baldintzatzen dituzte pertsonen jokaerak.



GENERO IDENTITATEA Pertsonak bere baitan eta indibidualki sentitzen duen genero-esperientzia. Esperientzia hori bat etor daiteke jaiotzean esleitutako generoarekin edo ez, eta gorputzaren pertzepzio pertsonala biltzen du (jo dezake, askatasunez aukeratuz gero, itxura aldatzera, medikuntzaren, kirurgiaren edo beste bitarteko batzuen bidez), bai eta beste genero-adierazpen batzuk ere, janzkera, hizkera eta keinuak barne.

SEXU-ORIENTAZIOA Pertsonak beste genero bateko, genero bereko edo genero bat baino gehiagoko pertsonengana hurbiltzeko duten gaitasun emozional, afektibo eta sexuala, bai eta ezartzen dituzten harreman intimo eta sexualak ere. Homosexuala, asexuala, pansexuala, bisexuala, heterosexuala.

SEXU BIOLOGIKOA Gizakia gizon edo emakume bezala definitzen duten ezaugarri biologikoak dira. Ezaugarri biologikoen multzoak ez dira elkarren baztertzailak; izan ere, badira biak dituzten pertsonak, baina normalean ezaugarri horiek gizakiak bi taldetan banatzen dituzte: gizonak eta emakumeak (OME).

Nerabeen gurasoentzako Familia Eskola



Maiatzaren 10ean 18:30ean, nerabeak dituzten familientzat Eli-kadura kontsumoaren nahasmenduen inguruko hitzaldia prestatu dugu Mankomunitateko Esku-hartze Komunitarioko zerbitzutik. Izen emate epea maiatzaren 6ra arte dago zabalik.

Maiatzak 31: Tabakoaren Kontrako Nazioarteko Eguna



Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) 1987an aldarrikatutako efemeridea da, pertsonak tabako-kontsumoaren eta kearekiko esposizio pasiboaren ondorio kaltegarri eta hilgarriaren inguruan informatzeko eta kontzientziatzeko.



Arnotegi



San Pablo Gotorlekua

Gotorleku karlistak

Historian zehar, gure herrian borroka asko izan dira, gure nortasuna eta independentzia gehienetan jokoan egon delarik. Kristo aurretik hasita, zelta herriak pasatu zirenean, gaur arte ez dira gutxi ez borrokak, ez horiek utzi duten arrastoa. Alde batetik, gure gizartea eratzeko eran utzi dute arrastoa, baina, bestetik, arrasto fisikoak ere utzi dituzte.



Banderas Gotorlekua

t: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

XIX. mendean, karlistaldiak edo gerra karlistak gertatu ziren Euskal Herrian: lehenengoa, 1835-1839 artean, eta azkena, 1872-1876 bitartean. Karlos erregearen alde (karlistak) edo Isabel erregearen alde (liberalak) egotea zen aitzakia. Baina, zalantza barik, gauza gehiago zeuden jokoan. Mundu eta balio tradizionalak defendatu zituzten karlistek;

idea liberalak eta komertzio era berria, liberelek. Foruen eta ordura arteko mugen alde egin zuten karlistek; foruak desegin eta mugak aldatzearen alde, liberelek.

Gerra haien ondorioak gogorrak izan ziren herritarrentzat: milaka hildako, gosea, udalerrak zorrez beteta, mendi publikoak pribatizatzea eta euskal foruak kendu izatea. Hiriburuek, bereziki Donostiak eta Bilbok, liberalen alde egin zuten hasieratik. Ez da harritzekoa, itsas portua


zutelako, eta merkataritzan interes handiak. Karlistentzat oso garrantzitsua zen Bilbo menderatzea. Tomas Zumalakarregi bera bidali zuten, eta Begoña inguruan belaunean jasandako zauri baten ondorioz hil zen.

Karlistek behin eta berriz saiatu ziren Bilbo hartzen. Horretarako, inguruan gotorlekuak eraikitzeari ekin zioten bi bandoek. Garai hartan erabilitako 19 gotorleku kontatu dira; haietako asko, Txorierrri inguruan. Santo Domingon, Pikotamendin (haize errotaren ondoan) eta Cabras mendian gotorlekuak zeuden, nahiz eta gaur egun horien arrastorik ez egon. Aixpurun ere (Arriagatik Astrabuduara doan bidean) oso eraikuntza handia zegoen, gaur egun arrasto txikia baino ez dena. Enekuri inguruan erraz aurkitu daitezkeen beste bi ditugu: San Pablokoa eta Elorriaga/Banderasekoa.

Avril mendikoa kasu berezia da. Napoleonen garaian, Jean Jacques Avril gobernadore frantsesak agindu zuen eraikitzea. Karlistaldian ere erabili zen. Barruan antena batzuk dituen arren, ez da asko aldatu. Arraiz eta Arnotegiko gotorlekuak urrunago daude, baina bisi-tatzea merezi du.

San Pablo gotorlekua / Lutxanako bataila

Txorierritik Enekurirantz begiratuz gero, mendi tontortxo bat ikusten da. Baina ez da naturala: gotorleku bat zegoen bertan, orain jausita eta erdi estalita dagoena. Bere oinetan, 1836an, Lutxanako bataila ospetsua gertatu zen. Karlistek, Egia jeneralaren agindupean, Bilbo setiatu zuten. Liberalen armada Portugaletera heldu zen azaroaren 25an, Esparteroren agindupean, eta hainbat saiakeren ostean, abenduaren 25an San Pablo gotorlekua okupatu eta karlistek handik alde egitea lortu zuten.



Ibilbide proposamena

Oraingo honetan, 6,5 kilometroko ibilbide erraza proposatzen dizuegu, eta San Pablo eta Elorriaga/Banderas bisitatu. Sondikako Zangroiz auzora joango gara, hainbat pabiloi pasatu ondoren, presa eta parke biribil txikia dauden lekuraino. Ibilaldia hasi aurretik, ez ahaztu Erdi Aroko bertako zubia zeharkatzea: ondoko zubiak uholdeak eroan zituen arren, zutik jarraitzen du han, nahiko inguru degradatu batean bada ere. Gorantz doan bidea hartuko dugu eta etxe batzuetatik igaro ostean, ezkerreko base-riaren ondoan (300 m) geldituko gara. Zangroniz leinuaren dorrea ei zen, eta, altura galdu arren, harrizko hormak eta leiho ederrak ditu oraindino.

Aurrera egingo dugu. Autobiaren gainetik pasatuko gara eta laster eskuinetara joko dugu, eta gero, ezkerretara: Erandioko Faoeta auzora heldu gara. Beherantz eginez gero, Enekuriko

bidera aterako gara; beraz, guk ezkerretara egingo dugu, gorantz, eta laster (1.500 m) San Bernabe ermita ikusiko dugu. Ermita hori, garai batean San Pablo deitutakoa, karlistaldian hondatu zuten eta luzaroan egon zen konpondu barik.

Hortik aurrera asfaltoa utziko dugu. Lurrezko pisten artean hartuko dugu zuzen gora doana. Apur bat aurrerago, 350 metrora, pista utzi, eta ezkerretara bidezidor argi batetik gora egingo dugu. Laster helduko gara San Pablo gotorlekua zegoen lekura. Horma zahar baten arrastoak ikusiko ditugu. Goraino igoko gara, merezi du eta. Dorrea zenari buelta emango diogu, eta bertako ikuspegia gozatu.

Utzitako bidezidorretik gora jarraituko dugu. Bernak agirian dituzuenek kontuz ibili otearekin. Ez dago bide argirik, asko daude zabalduta, eta aukeratu beharko dugu garbien dagoena, ote gutxien duena. Sanpablomendiko tontorrera helduta,

buzoia eta guzti, argi ikusiko dugu hurrengo helmuga: antenak dauden tontortxoak. Apurka-apurka, jaisten hasiko gara ondo markatutako bidezidorretik. Otearen baimenarekin helduko gara Enekuritik Artxandara doan errepidera. Hori gurutzatu, eta belar artean dagoen bidezidorra hartuko dugu. Helburua da goiko antenetara ailegatzea eta haietara hurbildu ahala ikusiko ditugu harrizko hormak: Elorriaga/Banderas gotorlekuak dira.

Itzulia gotorlekuaren eta antenen atzeko aldetik egin beharko dugu, San Inazio auzoaren gainean gaudela eman- go du une batzuetan. Porlanezko bidetik jarraituta laster egongo gara Berriz auzoan. Ez ikaratu, tiro-hotsak entzunez gero, inguruan tiro-praktikak egiteko gunea dago eta. Errepidera heldu, eta Artxandarantz egingo dugu. Ibilgailu-praktikak egiteko pistak pasatu, eta ezkerreko bidea hartuko dugu. Hainbat bihurgu- neren ostean, Zangroiz auzoan izango gara berriro.



“Aurrera jarraitzeko beste indar hartu dugu”

MARIKOBASO ESPAZIOA

Martxoaren 19an, Marikobaso Espazioa aurkeztu zuten jendaurrean, Derion. Hori herriko hainbat elkarte eta pertsona auzolanean egiten dabilzan proiektua da eta lau zutabe nagusi ditu: kultura, euskara, feminismoa eta ekologia. Marikobasozainek kontatu digutenez, egitasmoak harrera ezin hobia jaso du, eta gogotsu dabilza bidea egiten jarraitzeko.

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: Marikobaso

Aurkezpen dotorea egin zuten Urkiola kaleko seigarren zenbakian: egitasmoaren nondik norakoak azaltzeaz gainera, Gazte Orkestrak ordubeteko kontzertua egin zuen eta kopaua egon zen Marikobaso Espaziora gerturatutako guztientzat. “Nahiko lagun batu ginen bertan, nagusiak, helduak, gazteak zein umeak, eta pozgarria izan zen, gure asmoa baita gune hau adin guztietara zabaltzea. Era berean, jakinmina zela eta, kaletik pasatzen ziren pertsona batzuk ere ekitaldian gelditu ziren, eta gizarte-sareen bidez jaso ditugu aurkezpenera hurbildu ezin izan ziren lagunen animoak eta desio onak”, kontatu digute Ane Lopezek eta Aitor Duranek. “Oso aurkezpen hunkigarria izan zen. Babesa jaso dugu, eta guk ez ezik

“Guk ez ezik gainerakoek ere gune hau beharrezkotzat jotzeak adierazten du badugula zer egin”

gainerakoek ere gune hau beharrezkotzat jotzeak adierazten du badugula zer egin. Aurrera jarraitzeko beste indar hartu dugu”.

Babes ekonomikoa ere jaso dute. Horrela, egitasmoa finantzatzen laguntzeko *crowdfunding*-kanpaina egin dute eta gutxieneko diru-kopurua gainditu dute. Guztira 4.684 euro batu dituzte.

“Euskal Herriko zazpi probintzietatik eta Galiziatik jaso ditugu diru-ekarpenak. Poz-pozik gaude, dirua behar dugulako proiektua sustatzeko: alokairua, ura, argindarra eta ekintzak ordaindu behar dira”. Autokudeaketa oinarri izango dute Marikobaso egitasmoak berak eta bere gerizpean mamitzen diren ekintza guztiek. Hortaz, esandako diru-kopurua nahikoa izango da hurrengo hilabeteetan aurrera egiteko, baina beste finantzazio-era batzuk topatu beharko dituzte. “Maiatza aldera bazkide-tza-kanpaina ipiniko da martxan, herriko eta inguruko jendeak ere egitasmoan parte hartu ahal izateko. Bazkide-tza-kanpaina urte osoan egongo da zabalik. Urteko kuota ordaindu beharko da eta bazkideak lehentasunak izango ditu, adibidez, sarrerak merkeago erosteko edo lehentasuna izena emateko orduan”.





Ohea aldatzen dizugu,
bizitza hobetzen dizugu

BILBAO Ledesma 32 | Tf. 944 145 875
DERIO Seminario | Tf. 944 545 147
LEIOA Av. Iparragirre 80 | Tf. 944 316 516

www.suitdelux.com

*Elkartegintza indartzeko
proiektua ere bada,
eta Derioko talde
eta koadrila guztiei
zabalik dago*

*Ekitaldiak herriko
beste toki
batzuetara
ere eramateko
asmoa dute*

*“Kultura, euskara,
feminismoa eta ekologia
ditugu ardaztat; hala
ere, zabalik gaude
proposamenetarako”*

Izan ere, Marikobaso Espazioa herriari ekarpena egiteko jaio da. Horregatik, eta kultura, euskara, feminismoa eta ekologia ardaztat dituela, hainbat ekintza egiteko gunea eskainiko die derioztarrei. Martxoan eta apirilean egin dira, besteak beste, Martxoaren 8ari lotutako dantza-tailerra, KORRIKA kulturalaren ekintzak, herriko artisauen azoka eta biniloak jar-tea. “Azoka hilean behin antolatzeke asmoa dugu. Hura Marikobasotik kanpo etorritako proposamena izan da, eta oso harrera ona izan du. Hain harrera ona, ezen herritar batzuk azaldu baitira azokan parte hartzeko prest. Bestalde, Txukun programa sortu da egitasmoaren

baitan. Horren ardatza ekologismoa da eta hilean behin egingo dugu. Lehen saioan, esaterako, joan ginen 280 Uribe GR garbitzera eta sastrakak kentzera. Marikobasotik at egin dugun lehen ekintza izan da, ze hori ere garrantzitsua da guretzat. Gainera, ekologismoaren inguruko taldea sortu da gure baitan eta eko-plan bat garatzen dabilta”.

Elkartegintza

Marikobaso Espazioa herriko hainbat elkarte, taldek eta pertsonak ipini dute martxan, eta haien artean daude Tximitx komunitatea, San Isidro-jai batzordea eta Koxak talde feminista. Herritarren elkar-

gunea izateaz gainera, elkartegintza indartzeko proiektua ere bada, eta Derioko talde eta koadrila guztiei zabalik dago, bertan bilerak, tailerrak eta gainerako ekintzak jorratu ditzaten. Esan moduan, auzolanean garatutako proiektua da eta egoitza ere auzolanean atondu dute. Bertan daude, besteak beste, ikastaroak eta hitzaldiak egiteko aretoa, bileretarako gela, partaideek eramandako liburuez hornitutako liburutegia eta *chill out* txokoa. Kanpoaldea ere lagunen artean apaindu dute: murala, grafitia, kartela... Ekitaldiak eta kanpoaldean ere egiteko asmoa dute, eta horiek herriko beste toki batzuetara ere eramán.



Datorrena

Hurrengo asteetan ekitaldiak egongo dira Marikobaso Espazioan. Horrela, bada, apirilaren 26an Derioztartu ekintzaren lehen eskola-saioa egin zuten eta hurrengo saioak maiatzaren 31n eta ekainaren 28an izango dira. “Iñaki Gaminderen eskutik ikasten gabiltza derioztarren kultura, ohiturak, euskara... Egia esan, oso-oso emozionatuta gaude”.

Beste aldetik, apirilaren 29an bini-loak jarriko dituzte, eta hurrengo egunean, apirilak 30, intsumisio fiskalaren inguruko tailerra egingo da. “Maiatzean, herriko jaietan, azokan izango gara taldeak egiten eta batzen den diruaren zati bat Marikobasorako izango da; beste zatia oraindik zehaztu barik dugun elkarre baterako izango da. Azkenik, eta eguraldia lagun badugu, maiatzaren 29an Untza erreka garbitzera joango gara”. Aipatutakoak lerro hauek idaztean itxita izan dituzten ekintzak dira eta bali-teke beste batzuk ere antolatzea; beraz, adi egon Marikobaso Espazioaren gizar-te-sareei eta ohiko hedapen-kanalei.

Herriko talde guztientzako eta adin-tarte guztietako derioztarrentzako lekua da Marikobaso Espazioa. Azaldu dutenez, egitura horizontala izango du eta erabakiak modu demokratikoan hartuko dira. "Hau gure beharrak asetzeko lekua da eta nahi duena etor daiteke parte hartzera eta ideiak ematera. Guztiok ekartzen ditugu ideiak eta ilusioak eta horrela egiten dugu aurrera". Etorkizunean jarraitu beharreko urratsak egunetik egunera zehaztuko dituzte. "Gure lau ardatzak finkatuta ditugu, baina zabalik gaude proposamenetarako eta beste eragile batzuk ere proiektuaren partaide izan daitezten. Etorkizunak esango du. Dena dela, jaso dugun babesa eta jarrera ona ikusita, aurrera jarraituko dugu, gogotsu gabilta eta. Maiatzean edo ekainean asanblada orokorra egin beharko genuke ideiak jasotzeko".

Marikobaso auzoa Derioko eta Zamudioko lurretan dago, Bilboko hilerriaren eta aireportuaren artean. Kultura, ekologismoa, feminismoa, euskara eta elkartegintza egitasmoaren bidez zabalduko da Derioko txokoetara, eta auzo bitxi horrek ere lekua izango du herrigunean.



Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIN UDAL
EUSKALTEGIA



EKAINEKO IKASTARO TRINKOA

NOIZ:

Ekainaren 1etik 24ra

HELBURUA:

C1 eta B2

ORDUTEGIA:

9:00-14:30

ORDU KOPURUA:

90 ordu

IZENA EMATEKO EPEA:

Maiatzaren 27an



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrin.eus

a. He. eta. Lopez (www.oxit.com)

t/a: Itxaso Marina Ondarroa

Otsailaren 23an, ohi moduan, Lizaren gurasoak lanera joan ziren, eta bere anaia txikia eskolara. Berak, goizean, unibertsitateko lanak egin zituen etxean, pandemia dela-eta online ikasten duela-ko, eta arratsaldean lagun batekin joan zen gimnasiora eta, ondoren, zerbait hartzera. Etxera itzuli zen, hurrengo ordutan gertatuko zenaren susmorik izan gabe. "Goizaldeko laueta-edo hasi zen hegazkinen hotsa entzuten. Telebista piztu genuen albisteak ikusteko. Goiz horretan ama lanera joan zen, eta aita dirua ateratzera. Eguerdia aldera amak deitu zuen bere bila autoz joateko: beste hiri batean lan egiten du eta ez zuen nola itzuli, garraio publikoa ez zebilelako. Gainera, hiri horri erasotzen hasiak ziren, bertan aireportu militarra dago eta. Bestalde, neba nagusiaren eta bere familiaren bila ere joan ginen, etxean sotorik ez dutenez, gurekin egon zitezen".

Lizaren esanetan, jakin bazekiten Errusia Ukrainara indarrez sartuko zela, baina ez zuten espero egun horretan izatea. "Aitak esan zigun sotoa atundu behar genuela han egoteko, eta, badaezpada, motxila txiki bat prestatu. Hegazkinen hotsa entzun arren, urrun zeudela esaten ziguten eta lehenengo egunetan gutxiago joaten ginen sotori. Zarata, batez ere, goizean eta gauean entzuten zen; arratsaldean lasaigo zegoen. Egun batean janaria erostera irten ginen eta handik oso gutxira itxi ziren denda guztiak. Bost egun-edo pasatu ostean hasi ginen hegazkinen hotsa hurbilago entzuten: etxera hurbildu, gainetik pasatu eta urruntzen ziren. Hortaz, tarte luzeagoak ematen genituen sotoan. Ondoko familia ere gure sotoan izaten zen, ez zutelako non babestu".

Egoera gero eta gordinagoa zen egun batetik bestera eta Irpinetik, euren hiritik, nola atera aztertzen hasi ziren gurasoak. "Bakarrik neba txikia eta biok alde egitea nahi zuen amak, baina beste herrialde batera joanez gero, ziur asko arazoak izango nituen neba nirekin izateko; beraz, hirurok alde egingo genuela erabaki zuten azkenean. Aita kalera irteten zen, hiritik ateratzeko modurik ote zegoen ikustera, eta egun batean etxera itzuli zen eta esan zigun bost minutu genituela gure gauzak hartzeko, banaketa-furgoneta bat berehala irtengo zela, eta, beharbada, Irpi-

UKRAINAKO ERREFUXIATUAK DERION

Liza Klymenko eta bere ama eta neba –Olha eta Fedvir– martxoaren 11n ailegatu ziren Deriora, Josebe Lopez eta bere familiaren etxera. Otsailaren 24an, Errusiak Ukrainari eraso egin zion eta harrezkero ia bost milioi herritar atera dira herrialdetik, gerratik ihesi.



netik ateratzeko azken aukera zela". Liza eta bere ama eta neba ez ezik koinata eta iloba txikia ere igo ziren furgonetara. Errepide nagusiak txikituta, bidaia landarik landa egin behar izan zuten, eta herri txikietatik itzulingurua eginez. "Jendea gainezka zegoen furgoneta eta batzuek animaliak ere zeramatzaten. Bat-batean bonbardatzen hasi ziren eta 20 minutuan-edo bidaia makurtuta egin behar izan genuen... Jendea negarrez ari zen... Beldur handia pasatu genuen".

Furgonetak Kievera eramane zituen. "Trena hartu genuen koinataren fami-

liaren etxera joateko eta egun batzuk eman genituen bertan, egoera lasaigo zegoelako. Pentsatzen genuen egun batzuk pasatuta agian etxera itzuli ahalko ginela, baina ez... Ez genekien nora joan eta Joseberi idatzi nion ea hona etortzeko modurik zegoen jakiteko. Getxoko lagun birekin ipini ziren harremanetan, izan ere, laguntza humanitarioa eramatekoak ziren eta, itzulian, autoan lekua zuten gu ekartzeko. Koinataren gurasoen herria lau ordura dago Poloniatik. Hara joateko, autobusa eta trena hartu genituen. Oin- ez ere joan ginen. Muga iluntzeko zor-

enbiltzala hasi ziren handia pasatu genuen"



"Bost egun pasatu ostean hasi ginen hegazkinen hotsa hurbilago entzuten"

"Poloniako muga iluntzeko zortzietan-edo gurutzatu genuen, oinez. Jende asko zegoen, eta elurra"

"Aitarekin eta neba nagusiarekin hitz egin dugu. Ondo daudela esan digute, baina triste sumatu ditugu"

"Hangoak jende arrunta gara eta bizitza arrunta egiten dugu"

tzietan-edo gurutzatu genuen, oinez. Jende asko zegoen, eta elurra. Krakovian egun bi eman genituen, *hostel* batean, harik eta Getxoko lagunekin elkartu ginen arte. Boluntario asko zeuden, jatekoa eta edatekoa ematen ziguten".

Aita eta neba nagusia Ukrainan daude. Gerra-legea dela eta, 18 urtetik 60 urtera bitarteko gizonak debekatuta dute herrialdetik ateratzea. "Dena dela, haiek ez zuten Ukrainatik atera nahi. Boluntario moduan eman zuten izena armadan, baina ez zituzten hartu, guztientzako armarik ez zegoelako. Duela egun gutxi bideodeia

egin dugu haiekin hitz egiteko. Ondo daudela esan digute, baina triste sumatu ditugu...". Oso borrokaldi gogorrak izan dira Irpinen armada errusiarraren eta armada ukrainarraren artean. Euren herria horrela ikusita zer sentitu duten galdetu diegu. Lizak ez du jakin zer erantzun; amaren hitzak itzuli ditu: "Hangoak jende arrunta gara eta bizitza arrunta egiten dugu. Ez dugu inolako errurik. Halako gauzak gertatzea penagarria da oso". Ezagun gehienak Irpinetik atera dira. "Lagun bat, berriz, Leopoldisen bizi da eta kontatu dit aste bi eman dituztela sototik atera

gabe. Antza, soka garden batek etxea inguratzen zuen eta hura ukituz gero, bonbak lehertzen ziren. Azkenean atera dira eta orain beste herri batean dago, bere amamaren etxean. Ondo dagoela esan dit".

Zalantzaz beteta

Liza zortzi urte zituenetik etortzen da Deriora, uda Joseberen familiarekin pasatzera. Aurten amarekin eta nebarekin egin du Ukrainatik Txorierrirako bidea, Getxoko boluntarioen furgonetan eta beste familia ukrainarrekin batera. Zalantzaz beteta etorri dira, gainera, ez dakitelako gerra noiz amaituko den eta etxera noiz itzuli ahalko diren. "Lehen egunean elkarri begiratzen genion, eta berton zer egingo dugun galdetu. Amak dio ezin garela beti Josebe eta bere familiarekin bizi. Oso kezkatuta dago. Irpinera itzuli nahi du, baina ez diogu uzten".

Bitartean, hemengo bizitzara ohitzeko ahaleginetan dabilta. "Fedirrek eta biok online jarraitzen diegu eskola-saioei, eta ama gaztelania ikastera joaten da Helduen Heziketarako Ikastetxera; ni ere hara joaten naiz hizkuntza hobetzera". "Udalak igerilekuetako bonua eman die, sei hilabete erabil dezaten. Liza oso igerilari ona da", gehitu du Lopezek. Bere esanetan, lerro hauek idatzi arte ez dute laguntza handirik jaso administrazioetatik. "Martxoaren 14an Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordera jo genuen, eta bertan alta egin. Gizarte-langile batek deituko zigula esan ziguten, baina ez dugu oraindik bere berririk izan. Non gelditu ez dutenei lehen-tasuna ematen dietela jakin dut; nik bakarrik eskatzen dut esateko zer-nolako urratsak egin behar ditugun, orain arte egindakoa nire kabuz jakin izan dudalako. Atzeritarren identifikazio zenbakia atera dute, etxean erroldatu ahal izateko eta amak Lanbiden izena eman dezan. Semea institutuan noiz hasi zain gaude".

Derioztarren babesa eta atxikimendua jasotzen dabilta, eta eskertuta azaldu dira. Hala ere, etxera itzuli nahi dute; gaur bertan, ahal izanez gero. "Eskerrik asko laguntza humanitarioagatik, baina orain arma gehiago behar ditugu, eta Europak eta NATOk erantzun sendoagoa adierazi dezatela, Errusia gelditzeko", esan du amak. Zain-zain daude haien herrira noiz bueltatu.

Sanisidroak bueltan dira!

Bi urte daramatzagu COVID-19ak eragindako pandemiaren barruan eta apurka-apurka ohiko bizitza gabiltza berreskuratzen. Esate baterako, herriko jaiak itzuli egingo dira eta Derion sanisidroak ospatuko dituzte maiatzaren 13tik 16ra bitartean. San Isidro Jai-batzordeak hamar urte bete ditu aurten eta egitarau oparoa prestatu du adin guztietako lagunak kalera atera daitezen eta jaiak gozatu ditzaten.

a: Aner Menthaka

Bai, aurten, azkenean, herriko jaiak izango ditugu. Azken urte biak gogorrak izan dira guztiontzat, baita San Isidro jai-batzordearentzat ere. "Hainbeste denbora pasatu eta gero, ez da erraza izan berriro martxan jartzea. Lan handia egin behar izan dugu egitaraua betiko formatuan mantendu ahal izateko. Luze itxaron dugu eta gogor egin dugu lan dena antolatzeko: espero dugu bilatzen egon garen aniztasuna aurkitu izana eta jendeak jaietan parte hartzea. Baina, garrantzitsuena hau da: denok ondo pasatzea", esan dute jai-batzordekoek.

Pandemiaren haritik, antolatzaileek uste dute jaiak "normaltasunez" ospatuko direla. Dena dela, kontratu guztiek COVID-19 klausula dutenez, edozer gauza gertatzen bada, momentuan hartu beharreko neurriak hartuko dituztela berretsi dute.

Bestalde, eraso sexistei aurre egiteko, protokoloa egin da, behar izanez gero,



TXEPETXA aek ■ euskaltegia

Ondo pasa jaietan!
Eutsi **euskaraz** berba
egiteko **konpromisoari**

Gorbea kalea, 5
48160 Derio
944 543 967
607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

pozgarri

Gernikako Arbola, 4 (DERIO)
94 454 35 99

**ZIRIKADA
JATETXEA**

www.zirikadaderio.com
94 454 50 45
Gaztelumendi Plaza, 1 DERIO

Ane Aretxabaleta

ile-apaindegia
aurretiko hitzordua

9 4 4 5 4 3 5 8 0
Gorbea 8, Derio 48160

DERIOKO JAIAK

ISIDRO DEUNA 2022
MAIATZAK 13-16

13 barikua

- 19:00 Pregoia eta Txitxiburduntzia
- 19:30 **BROKEN BROTHERS BRASS BAND** herriko plazatik hasita, kaleetan zehar
- 22:00 Kontzertuak

**ZIPREXA
SUA
BIDEAN ERROMERIA
DJ REIMY**

15 domeka

10:00-14:30 **XXV. Elikagai eta eskulangintza Azoka,**
Kultur Birika inguruan

- 15:00 Herri bazkaria
- 16:30 Bingoa, **YOGURINA BOROVA** rekin
- 18:00 **ELEDER** magoa

14 zapatua

- 10:00 **"VI. ZUMBATHON"** elkartasun ekitaldia
- 12:30 **KAIBOR** diskofesta, Sollube kalean
- 15:00 Koadrilla-BAZKARIA eta jokuak
- 18:00 Euskal Dantzak **LAINOMENDI** rekin
- 19:00 **KARAOKE** ihiltaria
- 22:30 Kontzertuak

**MATXINADA
TOC
SKAKEITAN
GAZTE DANTZA GAUAK**

16 astelehena

- 11:30-13:30 Ume eta gazteen ekintzak
- 12:30-13:30 Marrazki lehiaketa
- 16:00-18:00 Ume eta gazteen ekintzak
 - 18:00 Marrazki-lehiaketaren sari-banaketa
 - 18:00 Txitxarrilloa
 - 19:30 Txokolatada
 - 20:00 Jaien amaiera



Antolakuntzak egitaraua aldatzeko eskubidea izango du

SUTONDOAN, ODOL ARGIA, SUBIKE, GURE SEÑEAK,
LAINOMENDI, EMAUS eta beste askorekin elkarlanean.

LEKUA
• HERRIKO PLAZA
• TXOSNAGUNEA
• FRONTOIA

 **Derio**

 **DERIO**
jaia BATZORDEA

*"Luze itxaron dugu eta
gogor egin dugu lan
dena antolatzeko, baina
garrantzitsuena hau da:
denok ondo pasatzea"*

*Txosnak kiroldegiaren
eta frontoiaren alboko
aparkalekuan jarriko
dira aurtan*

hura martxan jartzeko. Protokoloa jai-batzordeak eta Koxak herriko talde feministak landu dute elkarrekin batera.

San Isidro Jai-batzordeak hamar urte daramatza herriko jai nagusiak antolatzen. Beraz, bere buruari omenaldi txiki bat egingo dio aurtan eta pregoia 2012an jai-batzordean ibilitako lagunek irakurriko dute. Nobedadei dagokionez, garrantzitsuena izango da txosnagunearen kokalekua, aurtan berria izango baita: txosnak kiroldegiaren eta frontoiaren alboko aparkalekuan jarriko dira. Gainera, ekitaldi berri batzuk izango ditugu: Yogurina Borovak ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 15ean, bazkalostekoa girotzeko; era berean, Emaus Fundazioaren laguntzarekin, zunba erakustaldia egingo da txosnagunean, maiatzaren 14an; az-



kenik, Eleder magoa lehendabiziko aldiz arituko da Derioko jaietan.

Kontzertuak

Jai-batzordeak esan duenez, kontzertuak dira normalean jende gehien erakartzen duten ekitaldiak. "Beti saiatzen gara tokian-tokiko taldeei bultzadaxoa ematen; gainera, talde ezagunagoak ere

ekartzen ditugu, jaiei aniztasuna emateko". Barikuan, Ziprexa, Sua, Bidean erromeria eta DJ Reimy igoko dira taula gainera; eta zapatuan, Matxinada, TOC, Skakeitan eta Gazte Dantza Gauak. Saio guztiak txosnagunean egingo dira 22:30etatik aurrera.

Musikari lotutako beste ekintza batzuk ere egingo dira: maiatzaren 13an, pregoia



tximintx
KOMUNITATEA

**DERIOZTARTU
ZAITEZIE!**

Arteaga ESTANKOA

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel: 94 454 15 41
estancoderio@gmail.com



electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta

Ugaldeguren ind. 1, 5 pab. 12 B DERIO
t: 944 543 148



Skakeitan taldea



irakurri eta gero, Broken Brothers Brass Band talde nafarra herrian gora eta behera ibiliko da kaleak girotzen; eta hurrengo egunean, hitzordu bi azpimarratu behar dira. Batetik, Lainomendi dantza taldeko emanaldia, dantzari derioztarrek, betiko moduan, herriko jaiekin bat egingo dutelako; eta bestetik, karaoke ibiltaria. "Lainomendi taldekoa beti antolatzen du-

gu, arrakastasua delako. Eta karaokea ere gustatzen zaio jendeari".

Herri bazkariak

Herri bazkaria da beste ekintza garrantzitsuenetariko bat Derion. Aurten, bi antolatu dira txosnagunean: bata, gazteentzat, maiatzaren 14an; eta bestea, guztientzat, hurrengo egunean. "Za-

Besteak beste, Sua, Matxinada, TOC eta Skakeitan taldeak arituko dira

Herri bazkari bi antolatuko dira: zapatuan, gazteentzat; eta domekan, guztientzat

patuan, koadrilla bakoitzak bere janaria ekarri beharko du, eta guk mahaia eta aulkiak jarriko ditugu. Osteen, jokoak antolatuko ditugu, animoak pizten hasteko; eta domekan, bingoa egingo dugu", esan dute jai-batzordekoek.

"Adin guztietarako ekitaldiak ekartzen saiatzen gara", aipatu dute antolatzaileek. Umeek, esate baterako, Xaibor diskofesta izango dute maiatzaren 14an, 12:30ean. Gainera, azken egunean, maiatzaren 16an, hainbat ekintza antolatuko dira frontoian bai goizez, bai arratsaldez: puzgarriak, jolasak... Egun berean, astelehenean, marrazki-lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute gazteek eta hurrek. Eta jaiak behar bezala bukatzeko, txokolatada eskainiko da azken txanpan, jaiiei agur esan baino apur bat lehenago.

Lainomendi ren
dantza erakustaldia

**Maiatzaren 14an
arrastiko 18:00etan
Derioko plazan**

Isidro Deuna jaietan gozatu!!

"Gaztetasuna da gure indargunea"

ALTZORA SONDIKAKO EUSKARA ELKARTEA

Altzora Sondikako euskara elkarteak 2011. urtean sortu zen eta 11 urteren ostean garrantzitsutzat jo dute batzordea berritzea eta elkarteari aire berria ematea. Lekukoa Sondikako lau gaztek hartu dute: Olaia Ibarrondo Estebanek, Olatz Zarraga Murielek, Jone Eguskiza Garciak eta Galder Prieto Aliasek. Gazteak gogotsu agertu dira ardura berriarekin, Sondikan euskarari aupada emateko prest.

t/a: Itxaso Marina Ondarroa

Olaia, Olatz eta Jone kuadrilla berekoak dira eta Altzoraren lekukoa hartzeko gonbidapena lagun baten amaren eskutik jaso zuten. Haiekin batera egitasmoan parte hartzeko prest nor egon litekeen pentsatu, eta Galder nahasi zuten Sondikan euskara bultzatzeko arduran. Gazteak dira, 22 urtetik 26 urtera bitartekoak, eta beraien ustez gaztetasuna hain zuzen da euren indargunea. "Beraz, beste mota batzuetako ekintzak antolatuta, askoz errazago izango dugu jende gaztea erakartzea eta, ondorioz, herrian euskara sustatzea".

Kontatu digutenez, Sondikan batez ere umeekin egiten da euskaraz. "Nagusiek ere euskaraz egiten dute, baina gazteok eta helduek erderara jotzeko

joera dugu, lagunaren artean, etxean... Altzoraren ardura hartzea da geuk ere euskaraz gehiagotan egiteko modua; ea hori besteengan ere piztea lortzen dugun!". Altzorak orain arte egindako lana ezagutzen dute eta euskara elkarteak antolatutako ekintza batzuetan parte hartu dute. "Esate baterako, irrintzi-ikastaroan. Altzoraren Egunean ere izan gara inoiz. Gure helburua da elkartera jende gaztea ere erakartzea eta hori ekintzen bidez lortzea espero dugu. Dagoeneko bi batzar egin ditugu eta ideia batzuk atera

dira, adibidez, Kuadrilla Eguna antolatzea. Ohiko ekintzak ere egingo ditugu, hala nola hitzaldiak, tailerrak eta kontzertuak. Era berean, herriko gainerako elkarteekin lankidetzan ibili nahi dugu, eta feminismoa bultzatu. Ea pixkanaka-pixkanaka eta ekintzen bidez Sondikan euskararen erabilera areagotzen den!".

Altzoraren aurreko batzordearen kideekin batera egingo dutelan hasieran. "Gero, baten bat batzordean jarraitzea animatuz gero, bada, berarekin jarraituko dugu; bestela, geure kabuz". Lekukoa hartu berri

"Altzoraren ardura hartzea da geuk ere euskaraz gehiagotan egiteko modua; ea hori besteengan ere pizten dugun!"

"Lanean datorren urtean hasiko garen arren, gerta daiteke aurten zerbait antolatzeko moduan egotea"



dute eta orain zeregin berrietara ohitzen dabilta. "Lehen urratsak egin behar dira: presidentea aukeratu, bazkideen diruekarpenak nola kudeatu ikasi, helburuak ondo finkatu, jende berria eta bereziki gazteak erakartzeko estrategia aztertu, egutegia zehaztu, ekintzak ondo finkatu, udal aurrekontuetan sartu ahal izateko... Lanean ofizialki datorren urtean hasiko garen arren, gerta daiteke aurten zerbait antolatzeke moduan egotea, baina zerbait egiten bada, ziur asko, aurreko batzordearen kideen laguntzarekin izango da".

Plusa

Sondikan euskara bultzatzeko ardurari gogotsu heldu diote eta, aitortu duten moduan, beldur apur batekin. "Azken batean, ardura handia da eta nahi dugu dena ondo ateratzea. Ea herriak zelan erantzuten duen, hori ere garrantzitsua da eta. Sondikan euskara bultzatzeko, gazteek parte hartzea inportantea da eta guk elkarteari plus bat emango diogu zentzu horretan". Hala ere, kexatu dira ez dutela non batu. "Non bildu, ezta materiala non gorde ere. Materiala kideen etxean,

*"Ez dugu non bildu,
ezta materiala non
gorde ere; udalak
bultzatu beharko
luke hori"*

txokoa... gorde da orain arte, baina ondo legoke Altzorak bere lokala izatea. Gure ustez, udalak bultzatu beharko luke hori, azken batean garrantzitsua delako helburuari heldu ahal izateko".

Altzoraren kide berriak pozik azaldu dira aurrerantzean izango duten erantzukizunarekin. Gazteak erakartzea dute ardura nagusietako bat eta horregatik ipiniko dute gizarte-sareetan arreta berezia. "Facebookeko kontua badago, baina Instagramen ere zabalduko dugu kontua, gazteok normalean erabiltzen dugun gizarte-sarea denez, jende gazteengana hobeto eta errazago ailegatzeko. Ekintzak eta nagusiengana ahoz aho ailegatuko dira, ziur asko".

Aire berria

Altzoraren batzordeko kide ohiek azaldu dutenez, euskara elkarteak aire berria behar zuen. "Ordezkoak behar genituen, elkarteak arnasa hartzeko eta ideia berriak ekartzeko. Azken batean, elkarte guztietan gertatzen den moduan, hainbat urte pasatuta komeni da taldea berritzea. Beste alde batetik, Altzoran gazteak egotea ondo dago, ilusioa, indarra eta gogoa dutelako".

Euren esanetan, euskarak benetako laguntza behar du eta hori elkarteetan dago. "Ezin dira euskara elkarteak galdu eta horregatik ahalegindu gara ordezkioak topatzen. Gazteak etorri dira gure kasuan, eta guretzat oso-osoinportantea zen beste pertsona batzuek lanarekin jarraitzeko, Sondikan euskararen erabilera oraindik oso ahul dago eta. Argi dago euskarak ez duela erakundeen bitartez aurrera egingo; hortaz, kaleko jendeak egin behar du lana, eta gogoa elkarteetan jarri".



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

ZURE NEURRIRA



Kirola gozatzeko modu berria: pala egokitua



t: Joanes Camara, gizarteratze-teknikaria

Emaus Gizarte Fundazioaren PAI Bitartean programak hainbat tailer eskaintzen dizkie eguneko zentroetara etortzen diren pertsonari. Besteak beste, garrantzi handia ematen diegu osasunari, heziketari eta dibertsioari lotutako ekintzei, eta Derioko udal-frontoian, martitzenetan, egiten ditugun pala egokituaren saioek horiek guztiak batzen dituzte.

Abiapuntua da Derioko Udalarekin egindako akordioa. Horri esker uzten digu frontoia erabiltzen, eta urtebete baino gehiago daramagu pala egokitua lantzen dibertsitate funtzionala duten pertsonekin eta gizarteratu behar dutenekin. Bestalde, pala egokituko txapelketak sortu dira eta horiek pizgarria dira, saio bakoitzean entrenatzeko eta hobetzeko. Esandako lehiaketen baitan bi modalitate daude: gurrpil-aulkia eta dibertsitate funtzionala. Emaus Gizarte Fundazioaren jokalariek bigarrenaren hartzen dute parte.

Euskal Pilota Egokitua Master Cup Irekiak antolatuta, Derion aritu ginen lehen aldiz, Bizkaiko Txapelketan. Parte-hartze zabala izan zen eta Emaus Gizarte

Fundazioaren jokalariek nagusitu ziren. Aurtun, Pilota Egokituaren Sari Nagusian jokatu dugu Beasainen, eta bertan Euskal Herri osotik etorritako bikoteak ibili gara lehian. Finala Eibarreko Astelena frontoian jokatu zen, eta ETB1ean ikusi genuenez, oso maila handia egon zen.

Ekintzak oso harrera ona izan du PAI Bitarteaneko erabiltzaileen artean eta horregatik eraman dugu esperientzia Txorierriko beste erakunde batzuetara. Horrela, Lantegi Batuak Fundazioa gonbidatu dugu ekintzarekin bat egitera eta hiru hilabete daramatzagu elkarrekin entrenatzen. Emaus Gizarte Fundazioko erabiltzaileak bezala, Lantegi Batuak Fundazioko lagunak ondo baino hobeto moldatu dira kirol honetara, eta 12 palarik osatutako taldea sortu da. Kirolariak erabat motibatuta daude eta ikasteko gogo handia dute.

Argi utzi denez, pala egokitua egoki-egokia izan daiteke gizartearen hainbat talderentzat, eta emaitzak oso pozgarriak haien bizitzarako. Hori dela eta, PAI Bitarteanek jarraituko du egitasmoarekin aurrera eta beste erakunde eta gizatalde batzuk kirol honetan saiatzera animatzen.

Ekintza solidarioa

Iaz moduan, Emakumeen Nazioarteko Eguna azpimarratu nahi izan dugu martxoan eta berriro ere ACAMBI elkartearekin ibili gara lankidetzan. Hori Bizkaiko Ginekologiko eta Bular Minbiziaren Elkarte da. Aurtengo dinamika eta iazkoa oso antzekoak izan dira: lehenengo eta behin, gure ustez, emakumeen balioa eta izaera adierazten duten hitzak adostu genituen; ondoren, hitz horiek ipini genituen begizta moreetan; eta azkenik, eskumuturreko xumeak egin genituen. Eskumuturrekoak Derioko hainbat saltokietan ipini ziren salgai.

Eskerrak eman nahi dizkiegu egitasmoarekin bat egin duten saltokiei: Adarve taberna, Arteaga estankoa, Irrintzi taberna, Nagusien Etxea eta Imaz estankoa. Eta, jakina, dohaina egin eta ekimena sustatu duten guztiei: zuei esker lortu dugu 337,14 euro batzea eta dirua ACAMBI elkarteari emango diogu oso-osorik.

Zumbathon

Maiatzaren 14rako, eta Derioko San Isidro jaien barruan, Zumbathon ekintza antolatu dugu. Sarrerak bost euroan erosi daitezke gure egoitzan edo egunean bertan, eta batzen den dirua Gure Señeak elkarteari emango diogu. Ekintza 10:00etatik 12:30era izango da eta frontoian arituko dira Estatuko zumbaren dantzari onenariakoak.

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

Bizkaia

- Plater konbinatuak
- Ogitarkeak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

t: Txiribita / a: pexels-ksenia-chernaya

Aloea

Aloe vera, *aloe barbadensis*. Bere hostoak dira berdeak, mamitsuak, luzangak eta zorrotzak, eta ertzetan arantzak dituzte. Hostoen barruan dagoen gela substantzia terapeutiko moduan erabiltzen da. Landarea leku lehor eta eguzkitsuetan hazten da; hala ere, erraz egokitu daiteke, baldin eta klima oso muturrekoa eta hotza ez bada.

Landarea etxean badugu, gomendagarria da hura erabiltzea hiru edo bost urte dituenean. Momentuan bertan behar duguna hartuko dugu, eta kanpoko azala ere erabiltzen dugun momentuan bertan kendu. Hostoa 15-20 egunean gorde daiteke hozkailuan, behar denean erabiltzeko. Muturrak paperez estaliko ditugu, herdoildu ez daitezen. Zati mamitsuak erabiliko ditugu, eta puntak lehortuz edo zimelduz gero, moztu eta bota egingo ditugu. Batez ere gorputzaren kanpoko azalean erabiltzen da, baina barne-erabilerak ere baditu.

Ezaugarri dietetikoak

Aberatsa da aminoazidoetan, C, E eta B bitaminetan –B12 ere bai– eta mineraletan, hala nola fosforoan, kaltzioan, potasioan, burdinin, magnesioan eta zinkan. Jan edo zuku moduan edan daiteke. Merkaturan produktu asko daude kontsumitzeko prest; horri dagokionez, aloe likidoa duen produkturik erosten badugu, ontziak opakua izan behar du. Etxean zukuak egin ditzakegu, aloe jogurtarekin hartu, edo ur litro batean hosto bat sartu eta ura edanez joan.

Aloezko eta jogurteko irabiatua

Hurrengo osagai hauek behar ditugu: 150 g aloe (zatitua eta zuritua), ½ l jogurt, eztia eta limoi erdia (zuritua). Osagai guztiak irabiatu, eta hozkailuan sartuko dugu, postre moduan hartzeko. Dituen ezaugarriak direla eta, egokia da urdaia eta hesteak leheneratzeko eta babesteko.

Ezaugarri sendagarriak

Dituen printzipio aktiboei esker, barne-birsortzaile bikaina da urdaileko eta hesteetako ultzeretarako eta arazoetarako.

Aloe-tintura

Osagaiak: 300 g aloe (azala kendu barik) eta ½ l vodka edo uxual. Aloe edarian sartu eta 15 egunean izango dugu beratzen. Egunero eragingo dugu. Beratzeko denbora pasatu ondoren, likidoa iragazi eta gorde egingo dugu. Egunean hiru aldiz 5-10 tanta hartuko ditu. Defentsak hobetu egiten ditu eta lagungarria da digestioa egiteko eta idorreria arintzeko.

Erabilera mediko-kosmetikoak

Gomendagarria da azaleko gaixotasunak tratatzeko, azal koipetsuak sikatzeko, zauriak osatu eta orbaintzeko eta erredurak sendatzeko (eguzkiak eragindako erredurak ere bai). Ekzema eta psoriasis arintzeko erabili daiteke, eta bizarra egin ostean masaje-lozio moduan ere bai. Ilea sendatzeko eta leheneratzeko baliagarria da.

Aloe-gela

Hosto bat hartu eta zuritu egingo dugu. Ahalik eta gel gehien aterako dugu, eta mina dugun azalaren eremuan erabiliko dugu. Hostoa liburua baltz bezala ireki ere egin daiteke, eta eremuan zuzenean igurtzi.

Aurpegiko gaitzetarako erabili daiteke, erreduretarako edo bizarra egin osteko lozio moduan.

Aloe-ozpina

Aloaren pulpa ardo-ozpinetan izango dugu bi astean. Egunero eragingo dugu. Ondoren, likidoa ondo iragaziko dugu. Ozpina baliagarria da zauriak eta onddoak tratatzeko eta ilea sendatzeko. Arrosa edo hamameli-ura erabilita motelduz gero, pikortak eta gorriuneak tratatzeko erabili daiteke, eta bizarra egin osteko lozio gisa.

Aloe- eta ilen-krema

Osagaiak: ilen-eskukada handi bat (lore berriak), 250 g aloe (zuritu barik eta ondo zatitua), litro bat oliba-olio birjin eta 150 g argizari. Osagaiak ontzi batean ipini, eta su motelean berotuko ditugu, hostoek eta aloek hezetasuna galdu arte eta olio erre gabe. Sutik aterako dugu eta gaza bat erabilita iragaziko dugu. Crema kristalezko poteetan gordeko dugu. Ilenaren orde, hurrengo landare hauek erabili daitezke: erromeroa, zaldibuztana, haguna, kamamila eta malba.

Bitxikeriak

Liliazeoen familiakoa da, baratzuria eta tipula bezala.



Pegasus: Jaime Bond gure sakelan



t: Xabier Diaz / a: tecnologiageek.com

Espioien filmetan agertzen diren zenbait trikimailuk gehiegikeria diruditen arren, batzuetan errealitatea eta fikzioa ez daude bata bestearengandik hain urrun. Toronto Unibertsitateko The Citizen Lab ikerlari taldeak salatu duenez, Estatuko hainbat politikari eta aktibista Pegasus eta Candiru spyware⁽¹⁾-aren bidez zelatatu dituzte⁽²⁾. Haien artean daude Arnaldo Otegi eta Jon Iñarritu euskaldunak, Europako Parlamentuko kideak eta Kataluniako presidentek, legegileak, legelariak eta gizarte zibileko erakundeetako kideak. Ikerketan erabilitako metodologia Amnistia Internazionalako Tech Lab⁽³⁾-ek balioztatu du. Baina zer dira Pegasus eta Candiru aplikazio horiek?

Pegasus⁽⁴⁾ malwarea edo programa kaltegarria da, Troiatar⁽⁵⁾ eta Zero-Klik⁽⁶⁾ erakoa. Troiatarrek dira gure gailuetan guk jakin barik instalatzen diren programak. Erasotzaileak urrunetik kudeatzen ditu eta nahi duenean konektatu daiteke gure gailura, eta hori kontrolatu. Gainera, Pegasus

- (1) Spyware – Wikipedia <https://labur.eus/aikorpegasus1>
- (2) Scott-Railton, J., Campo, E., Marczak, B., Razzak, B., Anstis, S., & Böcü, G. et al. (2022). CatalanGate: Extensive Mercenary Spyware Operation against Catalans Using Pegasus and Candiru 2022/04/18, <https://labur.eus/aikorpegasus2>
- (3) Amnesty International – Technology <https://labur.eus/aikorpegasus3>
- (4) Pegasus (spyware) – Wikipedia <https://labur.eus/aikorpegasus4>
- (5) Troiatar – Wikipedia <https://labur.eus/aikorpegasus5>
- (6) Exploit, zero-click – Wikipedia <https://labur.eus/aikorpegasus6>
- (7) Phishing, Zer gara Interneteko arrantzan?, Aikor, 2014/10/22, <https://labur.eus/aikorpegasus7>
- (8) Candiru (spyware company) - Wikipedia. <https://labur.eus/aikorpegasus8>
- (9) Safi, A. elDiario.es Emmanuel Macron figuraba entre los posibles objetivos del espionaje de Pegasus. 2022/07/20 <https://labur.eus/aikorpegasus9>

zero-klik erakoa da. Gehienetan, zerbait egin behar da troiatar bat instalatzeko: SMS bidez bidalitako lotura bat klikatu, jatorri ezezaguneko app bat instalatu, phishing⁽⁷⁾ mezu bati erantzun... Zero-klik direnen kasuan, berriz, nahikoa da Wi-Fi edo troiatarra duen beste sare batera konektatzea, eta guk ezer egin barik ins-

talatzen dira. Behin instalatuta, deien jarraipena egin dezake, kokapena, kamera era mikrofonoak atzitu, eta mezuak, pasahitzak eta aplikazioen informazioa bildu. Gainera, antzeman dutela susmatzen duenean, gai da bere burua eta bildutako datu guztiak ezabatzeko eta erasotzailearen arrastoa ezkutatzeko.

Candiru⁽⁸⁾, bestalde, nahiko konpainia ezkutua da: ez dauka webgunerik eta gutxi jakiten da berari buruz. Enpresaren dokumentu bat filtratu da eta, horren arabera, Pegasus softwarearen antzera, bere malwarea gai da gailu batean instalatzeko eta datuak biltzeko, beraren eta erabiltzailearen artean ia elkarreraginik egon barik.

Ikerlariak baieztatu dute programa horiek 2017-2020 urteetan erabili direla. Programen atzean Israelgo enpresak daude. Euren esanetan, zerbitzua bakarrik gobernuei eta inteligentzia agentziei eskaintzen diete, beti ere terrorismoaren eta erakunde kriminalen aurka egiteko; hala ere, Emmanuel Macronen telefonozenbakia Pegasus Proiektuaren "Person of Interest" datu base batean agertu zen 2021ean⁽⁹⁾. The Citizen Lab-ek ez du lortu eraso modu eztaba daezinean entitate batekin edo bestearekin lotzea, baina, euren esanetan, ebidentzia sendoek iradokitzen dute Espainiako Gobernua nahasia dagoela.

Helburu komertzial zein politikoak direla, geroz eta kontu handiagoz ibili behar dugu sakelako telefonoekin. Gure pribatutasuna kolokan dagoela aspaldian nabarmentzen gabiltzan arren, hau larriagoa dela pentsatzen dut. Kasu honetan, gainera, gure segurtasuna aitziakiatzat hartuta, erasotzaileak dira babestu behar gaituztenak. Jaime, egon zaitenez nire sakelatik kanpo!

izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDICA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

euzkandik gortu

ABIOLKULARITZA - TASAIZIOA
ALOKATZEAK - ESKUALBATZEAK
SALEROSKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

Ursula
psikologoa

Psikologia & Neuropsikologia

644 649 752 ursula@cop.es
Las Mercedes 31, 4., 3. bul. (Abra 3 erakina)
48930 Areta (Getxo)

a: Kings Library-ren ikuspegia, British Library



Paperezko liburua eta liburu elektronikoa

British Library nahiz Azkue Biblioteka

t: Juan Luis Goikoetxea / a: wikipedia

Gustatuko litzaidake, irakurle, Aste Santu honetan ere Londresera joanik kalez kaleko txangoa egitea; Oxford Street-eko dendetatik igarotzea; British Library-ko Guttenberg Biblia ikustea. Zelako harridura bertako edertasunak, liburuak jagoteko giro egokituak, gerizeko argiek eta zaintzaile zorrotzen begiradek. Halako guneetan ikasten da zergatik duten liburuak isiltasunean berba egiten.

Noizean behinka, behar beharrezkoa dugu teknologiari oporrak ematea, pantaila txikiko monokulotik mundua, lagunak eta kultura beti ez ikustea. Berez, liburu elektronikoak itzelezko abantailak ditu: ez du pisatzen, ez hautsik batzen;

aproposa da kontsultetarako nahiz bilaketan aritzeko edo bideoekin loturak egiteko; USB bakarra nahiko duzu liburutegi osoa eskura edukitzeko.

Paperezko liburua eskuetan edukitzea, oster, lasaigarria da. Izatez, liburuak bidea eta bidaia dira. Bidea idazleak eraiki eta ireki du. Irakurleak bidaiariak dira, idazlearekin erromes doazenak. Bat eta besteak elkar behar dute, ezen idazleak sortutako bidea ez da amaitzen harik eta irakurleak liburuak irakurri duen arte. Bidean doazela, irakurleak pasarte zoragarriak aurkituko ditu edo ideia sakonak –telebistan entzuten ez direnak–. Bestalde, irakurle hori beti ez da bat etorriko idazlearekin. Hiru irakurle ari badira liburu berbera irakurtzen, hiru ikuspegi desberdinetatik begiratuko du-

te. Urliak esango du: “Zein kanpandorre handia!”; sandiak: “Hori gotikoa duzu!”; berendiak: “Zenbatek galdu ote zuen hor bizitza!”

Une oro izan behar genuke gogoan –formatuak formatu– helmuga irakurri egitea dela. Estatistikek dioskute, liburu-irakurleen artean, 10etarik 8k papera erabiltzen dutela; argitaletxeetan paperezkoen portzentajea gora joan dela; liburu elektronikoaren ekoizpena, aldiz, behera.

Gure irakaskuntzan, ofizialki, ia diru guztia onlinerako erabiltzen denean, ez genuke ahaztu behar Silicon Valley-koen seme-alabek arbel eta paper artean jasotzen dutela heziketa, eta kultura apa-lagoko herritarren umeek burua pantailan sartuta. Zergatik ez dugu onartu nahi umeentzako teknologiak adikzioa sortzeko asmatuak direla?

Ez dakit, euskaltzale, British Library-ri bidaiatzeko aukerarik izango duzun. Dakidana da Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekara edo Bidebarrietako Udal Liburutegira bisita egitea merezi duela –baita zeure herrikora ere–.

Azken batean, gainera, gozoa ere bada eta poza adiskideari, lagun kutunari, paperezko liburu txukuna oparitzea.

RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Teorierikoa*
Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu
24h **94 480 09 09**
ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A
TAXI FEMADE

ZAMUDIO
Loteria Nazionalea
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Etxeko sukaldaritza

Brie gazta- eta orburu-tarta

t: Maite Lekerika / a: Andie (Pexels)

Osagaiak (lau pertsonentzat):

- Hostore-lamina bat
- Orburu-lata bat
- 250 g Brie gazta
- 2 arrautza
- 250 ml esnegain
- Olioia
- Gatza

Prestatzeko era:

Ontzi batean irabiatuko ditugu esnegaina eta arrautzak. Gatza botako dugu. Olio molde bat igurtziko dugu, eta irin-eztatu. Hostorea moldean zabalduko dugu. Orburuak ipiniko ditugu (txikiak badira, osorik), eta gazta dadotan. Saltsa botako dugu gainetik, eta labe berora sartu. Bertan ordu erdi inguru izango dugu 180 gradutan. Bero jaten da.



Hegaluze-entsalada tomate eta marakuiaekin

a: Any Lane (Pexels)

Osagaiak (4 pertsonentzat):

- 400 g hegaluze
- Tomate gorri bat
- Marakuia bat
- Oliba-olioa

Prestatzeko era:

Tomatea dadotan ebakiko dugu eta marakuia mamia kenduko diogu. Tomatea olio apur batekin egingo dugu zartagin batean. Zartaginetik atera, eta katilu batean utziko dugu hozten. Ondoren, marakuia eta olio apur bat gehituko ditugu. Hozkailuan gordeko dugu, fresko egon dadin. Bestalde, hegaluzea zatituko dugu eta zatiak alde bietatik egingo ditugu plantxan. Hozten utziko dugu. Azkenik, hegaluze-zatiak, tomatea eta marakuia nahastuko ditugu, eta olio-zurrusta bat bota.

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu
naturalakGAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" N

www.gaminiz.com



Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: www.recrekids.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Bestaldean: Euskal iheslari politikoen bizipenak (Txalaparta), Ernesto Prat Urzainki eta Jaione Dorai Oskotz.

–Hotsetik hitzera: Nola bereganatzen dute hizkuntza haur euskaldunek? (Erein), zenbait egile.

–Euskal artikulua edo izaera (Dakit argitaldaria), Alatz Robles-Arangiz Bernaola.

–Azken etxea (Pamiela), Arantxa Urretabizkaia Bejarano

LITERATURA: GAZTEAK

–Baso ilun eta sakonean

(Txalaparta), Delphine Bournay. Itzul-tzailea: Garazi Arrula Ruiz.

–Joao (Ibaizabal), María González Rubio



Sudokua

4	9			3		2	
			8	6		4	
6	2						1
						3	
				1	3	9	2
		1					8
			2			6	5
				9			
	5				4	1	3

3	6	1	4	8	9	7	5	2
7	4	2	5	6	3	9	8	1
5	9	8	1	7	2	6	4	3
4	8	5	9	2	7	1	3	6
2	7	6	3	1	5	4	9	8
9	1	3	8	4	6	2	7	5
1	3	7	6	5	4	8	2	9
6	5	4	2	9	8	3	1	7
8	2	9	7	3	1	5	6	4

ZAMUDION BERTAN GAUDE

BAIRES
Higienizazioa eta ingurumen-garbiketa

Alberto Gainza:
691606715

contacto@baires.es
www.baires.es

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

Ikuskizunak

Larrabetzu

- > *Zorionak, Marimotots!* Maiatzaren 6an, 17:30ean eta 19:00etan, frontoian.
- > *Bidaide* antzezlan (Geuretik sortuak egitasmoa). Maiatzaren 29an.

Irteerak

Txorierri

- > Akarlanda-Martiartu-Akarlanda. Maiatzaren 22an, 09:30ean, Akarlandako beheko aparkalekuan. Izena ematea: 635 753 595 (maiatzaren 19a baino lehen). Berbalagunak antolatuta.

Musika

Sondika

- > Udaberriko kontzertua: Txuma Olagüe abesbatza, Sestaoko Orfeoia eta Euskeria Bilboko abesbatza. Maiatzaren 7an, 20:00etan, San Joan elizan.



Txuma Olagüe abesbatza

Larrabetzu

- > Musika Eskolako kontzertua. Maiatzaren 11n eta 16an, 18:00etan, Anguleri kultur etxean; maiatzaren 27an, 19:00etan, Andra Mari elizan.
- > Domekak Hori Bain. Maiatzaren 15ean.

Ospakizunak

Derio

- > San Isidro. Maiatzaren 13tik 16ra.

Zamudio

- > Bizkaiko Dantzarien Eguna. Maiatzaren 15ean.

Larrabetzu

- > Bizkargi Eguna. Maiatzaren 8an.
- > Nekazarien Eguna. Maiatzaren 15ean.
- > Kuadrilla Eguna. Maiatzaren 21ean.

Loiu

- > Gazte Eguna. Maiatzaren 7an, 12:00etatik aurrera: jolasak, bazkaria eta Taberna Ibiltaria. Kontzertuak, 22:30ean: Ugerda, J Martina, Mixerabliak eta Tierra Kritikal.



J Martina taldea



Tailerrak

Lezama

- > Batukada. Apirilaren 30ean (11:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 16:00etara) eta maiatzaren 2an eta 4an (18:30etik 20:30era), Uribarri Topalekuan. Izena ematea: berdintasuna@txorierri.eus.

Bestelakoak

Derio

- > Uda Ludogazte egitasmoaren ekintzetan izena ematea: maiatzaren 9ra arte, udal-webgunean. Multiabentura bidaia (5 egunekoa), Sopuerta Abentura, Kayak eta Big Sup.

Larrabetzu

- > Gune biziak: jolasgune parekidea eta hezitzailea eraikitzen. Maiatzaren 5ean.
- > Uda egitasmoan izena ematea. Maiatzaren 9tik 20ra, Anguleri kultur etxean.
- > Patioaren eraldaketa aurkeztea. Maiatzaren 20an.

ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unibe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

sarraila-denda Txorierri
ADITUAK SARRAILADUNTZAN ETA SEGURTAGUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@cerajeriatxorierri.com
www.cerajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4 lonja
48160 Derio

elekma
SARRAILAREN BAT DUTEN ETA DUTENA ELEKTRIKO BERRIK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXUKAK

lehenengo mailak • Preziarik onenak

BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorierri etorbidea, 25-3.N. • 48180 Leku
T: 944 599 232
www.elekma.es

XURREGOITI
JATETXEA

Laurioeta etorbidea, 27
48180 Leku-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantexurregoit.com

Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemale ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).

**STIHL**

2022KO UDABERRIA

**MUNDUA ZURE LORATEGIAN
HASTEN DA**

**ZAINDU ZURE STIHL
ADITUAREKIN BATERA**

GAMARIK HANDIENA ETA
ZERBITZURIK ONENA

garaje
AURTENETXE
www.aurtenetxe.es

Mungia

Sogean ind., 34. pab | 946 748 362
mungia@aurtenetxe.es

Lezama

Aretxalde, 105 | 944 556 266
lezama@aurtenetxe.es

Bilbao

Autonomia, 57 | 944 272 918
bilbao@aurtenetxe.es